



Argazkiak

protagonista



maiatzean



EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



BATXILERGOA A eta D EREDUETAN



**BATXILERGOKO
Aurrematrikula**

UNI EIBAR
Tel. 943 20 84 44

**MAIATZAREN
5etik
9ra**

LANERAKO ETA
ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA
PROIEKTUA

KALITATE PLANA

"LEONARDO" PROGRAMA EU-
ROPARRA

LANGAI

ESKOLA ELKARTRUKEA

URRATS-BAT
LAN PROIEKTUAK



Otaola Hiribidea, 29 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 Faxa. 943 20 31 96
E-maila. uni@iesunibhi.com www.iesunibhi.com

BATXILERGOA

A eta D eredueta

- ◆ Natur eta Teknologia
- ◆ Giza eta Gizarte Zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio Kudeaketa
- ◆ Merkataritza
- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena (A eta D EREDUAK)


GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena (D EREDUA)
- ◆ Informatika Sistemen Administrazioa
- ◆ Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
- ◆ Gorputz eta Kirol-ekintzen Sustatzea

**BIHAR
MAIATZAK 26
ATE IREKIEN
EGUNA
11:00-13:30**

Inoiz ez da azkarregi
heziketarik onena jasotzeko.

Ehun urte baino gehiagotan Aldatze Elbarko heziketan erreferentzia izan da. Gure inguruko beharrei erantzutez, garatutzea -pedagogia, hizkuntzak, teknologia berriak, EFQM...- izan dira eta diru errendik gure lanaren oinarriak.



**MATRIKULA ZABALIK
Batxilergoko hiru
modalitateetan**

maiatzaren 5etik 9ra

HEZIKETA INTEGRALA ETA KALITATEZKOA KRISTAU HUMANISMOAN OINARRITUTA

ALDATZE IKASTETXEA MENDI OYO BAT HEZTON

ELEBIDU IKASTETXEA

2. URTEK 18RA BITARTETIKO IKASLE NEKA-MUTILAK

AZKEN 15 URTEETAN SELEKTIBITATERO FROGA 4% INDEK GAINDITU DITUZTELARIK
IKASLEEN BANAKAKO JARRAIPENA.

ESKOLAKO ETA LANERAKO ORDUETEGIAK BATERAGARRI EGITEKO ZERBITZU ESKAINTZA

aldatze



ALDATZE

Colegio Santa María
de la Providencia

Aldatze kalea, 5 - Eibar - Gipuzkoa
Tel: 943 70 11 50 - aldatze@aldatze.org



Euskara Elkartea

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRATZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez

eta Ekhi Belar

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIAK:

Gabriel Brau

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kosta egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalakor erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatza eta berakatzatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

EDURRAK JO (DAU).- Elurra egin. "Edurra jo dau Naparrua alde guztia".

EDURTIL.- Elurra egiteko joera duen parajea. "Gure aldia edurtixa da, itsasotik aldentuta dalako".

EDURZULO.- Elurra zuloren batean elurra izoztuta geratzen den zuloa. Elurtegia. Gaztelerazko 'nevera'. "Guk izotz-fabrikia ezagutu genduan Birjiñapian. Baiña lehenago, mendixan. Edurzuluetatik ekartzen zan asto gaiñian izotza herrixetara".

EGARRIAK ESTU HARTU.- Oso egarbera izan. Zentzu figuratuan ardozalea izan. "Pelotari ona zan; bakarrik egarriak hartzen eban estu: ez hemengo uran egarriak, Riojakuanak baiño...".

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

MONDRAGON UNIBERTSITATEA ETA BOLOGNA PROZESUAREN AURREAN

Aurreko egunean, apirilaren 17an, Mondragon Unibertsitateko (MU) agintariak plazaratu duten Plan Berriaren inguruan prentsaurrekoa eman zuten bertako ikasleek. Deba bailarako ikasleok ere bat egiten dugu bertan esandakoarekin.

Muko arduradunek Bologna Prozesuak dakarren unibertsitate eredu merkantilistari bete-betean erantzutxo dion Plana diseinatu dute. Hezkuntza merkatuaren mesedetara jarriko duen eredu hori gozoki gozoa balitz moduan eskaintzen digute ikasleoi, Europar zehar mugitzeko inoiz baino erraztasun gehiago izango dugula esanez, eta eleantiztasun faltsuak eskainiko dizkigun alde positiboak behin eta berriz errepikatuz.

Europar esparru unibertsitate bakarra sortu nahi dute horrela. Inongo identitate propioirik gabeko europar herritarrak sortuko dituen hezkuntza sistema nahi dute. Merkatuak eta, zehazki, enpresek behar dituzten langile kualifikatuak sortuko ditu unibertsitateak. Pertsona aske eta kritikoak sortzea helburu izan beharko lukeen unibertsitateak enpresen behar formatiboetara molda-

tuko diren ikasle sumiso eta akritikoak sortu nahi ditu. Egunean zortzi ordu inguru ikasketei eskainiko dien ikaslea nahi du MUko plan berriak. Bere inguruan gertatzen denaz arduratuko ez den ikaslea, bere ikasketak ordaintzeko lan egin ezingo duen ikaslea; hain zuzen ere, ikasteko -eta horretarako bakarrik- biziko dena; gero, ikasketak amaitzean, lanerako -eta horretarako bakarrik- biziko den langilea sortu dadin.

Beraz, Deba bailarako heziguneetatik argi eta ozen zera esan nahi dugu: Ikasle Abertzaleok eta Euskal Herriak herri honen behar formatiboetara egongo den unibertsitate batean ikasi nahi eta behar dugu. Euskara, euskal gizartea, kultura eta abarren mesedetara egongo den unibertsitatea da Hezkuntza Sistema Nazionala lortze bidean une honetan hezkuntza esparruan guztiok batera eman behar dugun urratsa eta ez, MUK nahi duen bezala, merkatuak marraztutako unibertsitatea eraikitzea. **Gurea da hitza! Bologna gelditu beharko duzue!!!**

Deba bailarako Ikasle Abertzaleak


DATORREN ASTEAN EZ DAGO ASTEKARIRIK

Maiatzaren Leheneko zubia dela-eta, hurrengo barixakuan ez duzue astekaririk jasoko, egun horietan -zuetako askoren moduan- jai hartuko dugulako. Bitartean, ondo pasa oporrak eta gogoan izan **hurrengo ...eta kitto!-a maiatzaren 9an** izango duzuela, betiko moduan, buzoian.

asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Behea joko du ekonomiak datorren urtean, eta kosta egingo zaio berpiztea. Arazoa krisialdiari irtenbidea emateko orduan egongo da, urte bi edo beharko baitugu. Dena dela, Euskal Herriko ekonomiaren egoera (industria da giltza) ez da Espainian dagoena (eraikuntza izan da ardatz) bezain larria 'krisialdi' hitza erabiltzeko"
(Miguel Lazpiz, CEOeko presidenteordea)


"Gaur egungo arte galeria anitzetan dauden obrak edozeinek egin ditzakeela? Baloi bati jotzea ere erraza da, baina ez gara denak futbolari. Obrak bizitza osoa irauten duen obsesio edo gogoeta baten emaitza dira. Ziria sartzen diguten artistak badiren arren, artista gehienek lan handia egiten dute eta, aldez, edozeinek kritikatzeko dute"
(Blanca Oria, arte komisarioa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

 kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Oin, gosia

Munduko agintari asko arduratan dagoz janarixen preziua azken urtietan euki daben demaseko gorakadiakin. Izan be, kezkoa hartzeko modokua da: garixak, arrozak eta artuak batatz beste oin hiru urte baiño ehuneko 80 gehixago balio dabe. Nazio Batuak emon dabe abixua: egoerari bueltia ez bajako emoten, herri pobrietako millaka lagunak gosia pasauko dabe, janarixaren preziua ordaintzeko beste dirurik eukiko ez dabelako. Leku batzuetan hasi dira matxinadak: Egipton, Haitin, Filipinetan... Munduko Bankuko buruak bildurtuta dagoz, baiña ez hori jendetziori gosiak hiltzeko arriskua dagualako, ez bada be ze, matxinadak eta errebolak herri aberatsetara ailegau leikezelako. Hori dala-ta, herri pobreeri dirua emoteko prest agertu dira. Baiña hori adabakiña botatzia baiño ez da, sustraixan dagozen auzi bi konpon-tzen ez diran bittartian. Bata aspaldikua da: Estatu Batuak eta Europak nekazari-xeri emoten detsezen diru laguntzak dirala-ta, herri pobriek ezin leikixue ezer saldu euren prezixue ez diralako konpetitibua. Beste arazua barri samarra da: herri batzuk azukre-kaiña-bera eta arto saillak nabarmen haunditu dittue, baiña ez jendiari jaten emoteko, petroliuaren ordezko etanola egitteko baiño. Harrezkero, jatekuen produkziñua gero eta txikixagua da eta eskabidia, berriz, gero eta haundixagua. Horrek lehen-gora garoiatz: prezien etenbako karutzeria.

Juan Andres Argoitia

Legarreko barianteko lanak 2009an hasiko dira

Eguaztenean Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusia Eibarren izan zen, Gipuzkoako herri ezberdinen artean egiten ari den biraren barruan. Olanok herriko proiektuen berri jaso zuen goiz osoan zehar eta, hainbat konturen artean, bariantearen hirugarren faseko lanak 2009ko bigarren seihilekoan hasiko direla aipatu zuen.

Errepideetako Diputatuarekin kontaktuan jarri ostean, Markel Olanok adierazi zuen aurten lizitatuko dela Legarreko bariantea eta datorren urtean hasiko direla lanak. Horretarako, publikoa egin behar da aurretik bariantearen proiektua eta alegazioak ebatzi Diputatu-Kontseiluak hau onartu baino lehen.

Geltoki Intermodala

Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren bisitak, gainera, ezezaguna zen kontu berri bat ateratu zuen

azalera. Izan ere, Olanok adierazi zuen bezala, Diputazioa eta Debegesa geltoki intermodala eraikitzeke lanean dabiz. Geltoki intermodalaren sorrerarekin, herrian dabilzan konpainia ezberdineko autobusak eta trenbideak zentralizatuko lirateke.

Iñaki Arriolak, bestetik, dokumentu zabal bat eman zion Udalak aurrera eraman nahi dituen proiektuekin. Horien artean, trenbidearen estaldura dago, izan ere, honekin oinezkoentzako bide bat egin nahi da eta baita bidegorri bat ere. Estaldura honen aurrekontua 12 milioi eurokoa da, eta 2008 eta 2011 urteen artean egitea aurreikusten da.

Udalaren proiektuak biltzen dituen dokumentu zabal honetan, gainera, zezen plazaren birmoldaketa azaltzen da, kirol-ekipamendu (Orbea), kirol-kantxa eta igerilekuaren zabaltzearekin batera.

AHTaren aurkako ekintza Eibarren

A biadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako ekintza egin zen joan den zapatuan Eibarko tren geltokian. AHTa ez ordaintzeko egiten ari diren kanpainaren barruan, Durango eta Debatik hainbat pertsona abiatu ziren Eibarko tren geltokiraino txartela ordaindu gabe, AHTri egindako desobedientzia ekintza moduan.


Urriarri jarri zen abian AHTaren proiektua diruz ez laguntzeko EuskoTren eta Renfe enpresei ez ordaintzeko kontzientzi eragozpen kanpaina. Honen helburua AHTaren proiektua diruz ez laguntzeaz gain, aipaturiko enpresa bi hauen kolaborazioa salatzea da.



Ekimenean parte hartzen dutenen arabera, "EuskoTrenek AHTaren enpresa operadorea izan nahi du. Era berean, Euskal Trenbide Sarea, EuskoTrenen azpiegituren arduraduna, Euskal Y-aren Gipuzkoako zatia eraikitzen ari da. Eusko

Jaurilaritzak EuskoTren erabiltzen du AHTaren proiektuan xahutzen ari den dirutza ezkutatzeke".

Informazio gehiagorako www.blogak.com/ahtezordaindu guinea bisitatu edo ahtrijai@yahoo.es helbidera idatzi.



Josetxo Anitua musikaria hil da 43 urterekin

Hainbat taldetako aho-tsa izan zen Josetxo Anitua eibartarra eguaztenean (hilak 23) hil zen Bilbon, 43 urte zituela. Senide eta lagunek atzo eman zioten azken agurra, San Andres elizan egindako hiletan. Azken 10 urteotan Bilboko Kafe Antzokian disko-jartzaile ibili zen eibartarrak garairako oso au-

sartak izan ziren rock taldeetan jardun zuen 80ko hamarkadan, besteak beste Jugos de Otros, Cancer Moon eta Josetxo Grieta taldeetan. Horrez gain, Athom Rhumba eta Single taldeekin kolaborazioak egin ohi zituen. Lerro hauen bitartez haren senide eta lagunekin bat egiten dugu euren atsekabeen.

autuan

280.000 EURO ONCE-REKIN

Ipuruako Eroskin kupoiak saltzen dituen Isabel Angiozarrek martxa ezinhobea darama azken asteotan: hilabete eta erdiko tartean sari potolo bi eman ditu eta 20 bat lagunen artean 630.000 euro banatu du saritan, Martxoaren 7an eman zuen lehenengo sari potoloa eta apirilaren 16ko zozketan lehenengo sariarekin saritutako 62.692 zenbakiko 8 ale saldu zituen ondoren. Kupoi bakoitzeko 35.000 euro jasoko ditu jabeak.

1948-AN JAIOAKOAK

Urte horretan jaio eta, beraz, aurten 60 urte bete edo beteko dituztenak maiatzaren 10ean elkartuko

dira, Arrate Hotelean 21.30etatik aurrera afaltzeko. Izena eman nahi duenak 60 euro sartu beharko du, horretarako Untzagako Euskadiko Kutzako kontu korronte zenbaki honetan: 078103181.1.

HITZALDIAK

Ikastetxeetan garatzen diharduten hitzaldi zikloaren barruan, Andra Mari ikastetxean maiatzaren 7an izango da hitzaldia gurasoentzat: 'La relación de la agresividad con la autoestima de nuestros hijos e hijas'. Maiatzaren 5ean, berriz, elikaduraren inguruko hitzaldia emango du Ana María Lajustiziak, Bizirik elkarteak antolatuta. 19.00etatik aurrera gaur egungo elikadura hizpide izango du Portalean.



Sei hilketa

Maiatzaren 11n sei hilketa krudel egongo dira Eibarren. Zuloagaren omenez, aitzaki tristea. Guardia Zibilaren kuartelaren alboan gainera, horiek baina ezer gutxi egingo dute eragozteko. Zezen plazan, ikuskitun odoltsua, odol egarri direnentzat. Zezenketek zale ugari dituzte Euskal Herrian, tradizioa aspaldikoa da eta feriak ugariak. Baita beste animalien tortura publiko eta subentzionatzek ere, idi proba edo ahari talkek adibidez. Zorionez gizarte eta hezkuntzarengan itzaropena jarria dut, eta halako ohiturek gero eta zale gutxiago izateak poztzen nau. Zezen plazak gero eta hutsago daude, probalekuak bezala.

Gertukoena heldu den asteko zezenketa da baina. Lotsagarria, are higuinagarragoa justifikatzen saiatzen direnean. Zezenak ez duela sufritzen diote ironiaz. Ugaztun guztien nerbio sistema antzekoa da, animalia-ri min egiten dionak guri ere egiten digu. Argudio hori erabiltzen duenak ziur ez duela inoiz sartu eztena bizkarrean. Zezenak hil arte ondo bizi direla diote, toreroa gaizki biziko balitz bezala. Borroka orekatua dela diote ere, bai zera! zaurituriko zezenketaria plazan odolusten utziko balute bezala. Heldu den urtean plaza eraitisiko dute, tamalez, baina, segur asko ez da patibuluaren amaiera izango. Ez da are odolurik faltako gurean. Gizarteak emango dio bukaera, laster, hori espero dut behintzat. Azken lerroetara iritsi eta zutabea irakurri dut berriz. Haragijalea naiz, onartzen dut, eta gai hau tratatzean nire eta beste batzuen hitzei hipokresia pixka bat dariela ikusi dut halaber.

Imanol Magro
(KAZETARIA)


Errebaleko merkatalgunearen kontrako bloga zabalik

Errebaleko merkatalgune berriarekin engainatuta sentitzen den herritar talde batek blog (eibar.org/blogak/erreal) bat ireki du Interneten. Bertan, Erreal Center deritzenaren inguruko informazioa, iritzi ezberdinak, eta PSE-k 2003an egin zuen promesaren eta egingo den proiektuaren artean dauden desberdintasunak agertuko dira.

Errebaleko proiektuak zeresan asko eman du herrian. "Merkatu zaharra nola bota duten, baserritarren egoera kas-

karra, merkatalgunearen izen atzerritarra (Erreal Center), parkea egin behar zen tokian eraikuntza izugarria egin beharra eta abar", blogaren arduradunen esanetan.

Material eta informazio ezberdinak aurkitu ahal izango dira blogean eta bakoitzak bere iritzia azaldu ahal izango du nahi izanez gero. Blogaren arduradunen esanetan, "Errebaleko proiektuarekin iruzurra egin digute. Gauza bat agindu eta bestea egin. Azoka berritu behar zuten hasieran, parke eta



guzti, baina merkataritza zentru erraldoia egingo dute. Proiektuaren inguruko gogoeak azaldu nahi ditugu blog honetan eta, ahal dela, proiektu bideratzen lagundu".

Zibergela berritua Untzagan

Untzagako jubilatutako zibergela berritu egin da La Caixa Gizartekintzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak eta Eibarko Udalak duten hitzarmenari esker. Hitzarmenari jarraituta, La Caixa Gizartekintzak 48.000 euro bideratu ditu berrikuntza lanetarako.

Egindako lan eta berrikuntzen ondorioz, Untzagako Nagusien Etxeak azken belaunaldiko 12 ekipoinformatiko, funtzio anizdun inpresora bat, argazkilaritza digitaleko ikastaroak egin ahal izateko argazki kamera digital bat eta Zibergelako erabiltzaileen heziketa hobetzeko proiektore bat, pantaila eta guzti izango ditu bere Zibergelan.



La Caixa Gizartekintzak 48.000 euro bideratu ditu berrikuntza lanetarako.

Autobus ordutegirako pantailak

Herriko autobus geltokien aldamenean autobus-zerbitzuen berri emateko pantailatxoak ipini dituzte. Oraindik martxa betean

ez egon arren, laster autobusa ailegatzeko zenbat falta den edo hurrengo autobusa noiz irtingo den jakiteko modua izango dugu.



1998-IV-24
231. ZKIA.



Kondharian ikuskizuneko
Kezkako dantzariak.




Kukka talde barrixaren
aurkezpena egin zan.

- Garmendia Eibar Futbol Taldeko partetiarak taldea laga zeban bertan 19 urte egin eta jero. Taldeko kapitainak futbolleko marka josiak kutsi zitham, beste inor ez delako kainteste daraman egon talde berria.
- Kezka dantza taldeko last dantzariak Juan Antonio Urbeltsak zuzendutako Kondharian ikuskizunian hartu zeban parte. Euskal Herri asuan, Herri dantzaren antzerki mota barriak eskindu zeban lan korretan
- Kukka musika taldeak aurkezpena egin zeban gure herrian. Maite Arraitzajurezik eta Zaba Urainak osatzen zeban piletenak txela jotsen zeban eta bigarrenak gitarria jo eta abestu egiten zeban.
- Sanjañ jaietarako barriakak Unkizun eta Bittor Sarasketan jipintzeko asmoa jakinarazi zeban Udalak. Mokiba izan zan Txakha Zelaian obrak egiten zebizala eta korreagatik bertan ezin zirala kokatu.

Hezkuntzaren aldeko puzzlea

Zapatuan Aldatze ikastetxeak eta Egoaizia GKEak bat egin zuten hezkuntzaren alde mundu mailan garatzen diharduten mugimenduarekin, inor baztertuko ez duen hezkuntza sistema aldarrikatzeko. Hamaika arrazoi medio, munduan 70 umetik gora ez du kalitatezko hezkuntza bat jasotzeko aukerarik eta horrelako egoerak salatze hainbat ekimen burutzen dihardute domekan amaituko den aste honetan zehar. Aldatze ikastetxeko ikasleek eskolan egindako puzzlearen piezak kanpainaren amaieran Espai-



niako gobernuari entregatuko zaion puzzle handiagoaren parte izatera pasatuko dira.

Berria egunkariak bost urte

Berria egunkaria sortu zela 5 urte betetzen dira eta, hori dela eta, ekitaldi bereziak garatzen dihardute eskualdeka: Debarrenarako ekitaldia apirilaren 30ean, datorren eguaztenean izango da, UEUko egoitza nagusian, hau da, Markeskua jauregian, 19.30etatik aurrera. Ekitaldiari buruzko informazio zehatzagoa www.berria.info edo www.ueu.org helbidean aurki dezakezue.



Pedro Zalduegiri agurra

Azken urteotan Alfa taldeko Alfa Hogarreko ardura izan duen Pedro Zalduegiri jubilatze sasoia ailegatu zaiola-eta, berarekin beharrean jardun duten lankideetako batzuk omenaldia egin nahi izan zioten, apirilaren 18an bere omenezko bazkaria antolatuta. Argazkian ikusten dugun taldeak primeran pasatu zuen eguna Azitain aldean eta Zalduegiri oparia ere egin zioten, jubilatuta ere, eurekin oroitzeko.



Amnistiaren aldeko mugimendua auziperatua

Amnistiaren Aldeko Batzorde- en eta Askatasunaren kontra hasi berri den prozesu judiziala salatze manifestaldiak deitu dituzte gaur eguerdirako eta arratsalderako, 19.30etarako Untzagatik abiatuta. Auziaren inguruan honakoa adierazi nahi izan dute: "Preso politikoaren kolektiboren kontra hamarkadatan ezarri den eta ezartzen den dispertsio eta muturreko neurriek osatzen duten salbuespen egoera da delitua, eta ez hori salatzea. Epaitu nahi dutena Estatuen biolentzia eta errepresioaren salaketa eta euskal preso nahiz errepresaliatu guztiekiko elkartasuna da". Horri erantzuteko gaurko mobilizazioak deitu dituzte eta epaiketak dirauen bitartean burutuko diren ekimenetan parte hartze gongbitea luzatzen dute".

Bittor Sarasketako fabrika be etxiak egingo dira

Hiriguneko fabrika eta taillarrak desagertzen doiazan neurrian, edo euren dako aproposaguak diran poligonuetara juaten, haren tokixa etxebizitzak doiaz hartzen gure herrixan. Prozesu honen azken adibidia Bittor Sarasketa eskopeten enpresako fabrika zaharrian dakagu, hamendik gitxira botatzeko asmua dake-eta.

Promotore batzuk edifiziuia erosi dabe honezkero eta botatzia proposau dabe. Hogeitahamahiru pisu eta garajiak egitako asmua dago bertan, berarekin batera juango dan urbanizaziñuarekin.

Agiriak aurkeztuta

Gipuzkuako Diputaziñuak oin dala gitxi onartu daben Eibarko Hirigintza Ordenaziñorako Plan Generalak promotore

honen ekimenak aurrera jotzia ekarri dau eta, honezkero, hasi dira lehelengo urratsak emoten epaitegi zaharren onduan daguan zona hori aldatzen juateko. Hillaren hasieran aurkeztu zittuen agirixak Udalian horren terrenuorren jabiak eta, aurkeztutakuaren arabera, orube horretan etxebizitzan edifiziuia altxatzia aurreikusten da; azpizan garajian juango litxakez eta, beheko solairua be kontuan hartuta, sei altuera izango zittuan hōnek promotoriok proposatzen daben konstrukziñuak.

Eraikin barrixaren oiñarrixak "L" itxuria hartuko leuke eta, fatxada batek Bittor Sarasketara emongo daben bittartian, bestiak epaitegi zaharren onduan egin biharreko garajien edifiziuaren ondoko plazoletara emongo dau.



ERKI BELAR

Dagokixon momentuan aurkeztu biharreko proiektuan, luraren kalidadia aztertu daben estudixua be presentau biharreko da, modu horretan egon leiken kontaminaziñua detektatu eta berreskuratzeko neurrixak agertuz, kontuan izan bihar dalako aurretik industria aktibidadiak hartu dittuela hōrrek eraikiñorrek. Gaiñera, proiektuan be soluziñua emon

biharko jako Bittor Sarasketa kaliaren artian eta, urbanizaziñuarekin, sortuko diran barruko gune peatonalen artian egingo diran komunikaziñuei.

Guztira, 1.500 metro karratu inguru izango dittu eraikiñ horrek plantan, danetara 5.000 metro aprobetxatuz, eta hōrretatik 3.300 etxebizitzendako izango diranak, altuera guztiak kontuan izanda.



Untzagako jubiletxearen lanak aurrera

Untzagako Jubiletxian diharduen lanak beste hillabete baterako izango dabe gitxi gorabehera. Jubiletxera sartzeko ormak botata, atariko zonaldia egokittuko da eta, azkenian, itxi egingo dabe guztia, modu horretan eraikiña alineatuta geratzeko solairu

guztietan eta arkupiak desagertuko dira. Lanak ez dake zailtasun handirik eta, istripurik ez gertatzeko hesiak ipiñi badiittue be, jubiletxiaren funtzionamenduan lanok ez dake eragiñ haundirik. Obraren kostua 40.000 eurokua da eta eraikiñak 50 m² irabaziko dittu amaieran.

Herri Irratia Eibar
Loyola Media

Hércules C.F. - S.D. Eibar

Jarraitu partidua:
Borja Rodríguez
eta **Herri Irratiko**
kiroletako taldearekin

Apirilak 26, zapatua 18.30etan

90.7 Fm

NAGUSIEN XV. HAMABOSTALDIA


Jubilazioa atsedenerako garaia bezala ikusten du askok. Bizitza osoa lanean egon ostean, ahalik eta gauza gutxien egiteko momentua dela uste dute batzuk; lan egiteko ordua pasata, besteei lan horren karga uzteko garaia. Hala ere, mundu osoak ez du berdin pentsatzen eta ikuspegi ezberdinak ditu bakoitzak. Horren adibide da Biztu, Jubilatuta eta Pentsionisten Koordinakundea. Aurten Pertsona Nagusien XV. Hamabostaldia antolatu du erakunde honek, ekintzaz beteriko aste bi.

Eibarko biztanleriaren %23ak 65 urte baino gehiago ditu, 6528 pertsona dira hain zuzen ere. Hauetariko 1290 pertsona 65 eta 69 urte artekoak dira, 70 eta 74 urte bitartean 1610 pertsona daude, 75 eta 79 artea 1560, 80tik gora 2078 eta 8 pertsona dira 100 urtetik gora dituztenak. Horrela, biztanleriaren laurden bat da 65 urte baino gehiagokoa.

Klima aldaketa protagonista

Pertsona Nagusien XV. Hamabostaldia antolatzen da aurten ekintza askoren artean eta klima aldaketa izango da jorratuko den gai nagusia. Gaur emango zaio hasiera hamabostaldiari ekitaldi batekin. Horrela, Portalean Iñaki Arriola alkatea, Juan Ramon Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Mena-pekotasun eta Pertsona Nagusien Zuzendaria, Aitziber Cortazar Debegesako Ingurumen Arduraduna, Benjamin Atutxa Udaleko Gizarte Ekintzako Programaren Batzordearen Presidentea, Miguel Fernandez Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsionisten Elkartearen Presidentea, eta Enrique Aizpitarte Biztu Jubilatuta eta Pentsionisten Koordinakundearen Presidentea egongo dira 12.00etan.

NAGUSIA naiz, eta zer?



Nagusien Hamabostaldiaren aurkezpena hilaren 18an egin zen Portalean.

Apirilaren 28an, bestetik, Pertsona Nagusien Ibilaldia egingo da Juan Luis Mugerzaren oroimenez. Ibilaldia Untzaga Plazatik irtengo da 16.00etan eta Azitaingo industrialdean amaituko da. Hurrengo egunean Txokolate-jana egongo da 16.00etan San Andres Egoitzakoentzat eta Aitziber Cortazarrek 'Klima aldaketa' izenburupean bideo-hitzaldia eskainiko du 17.00etan Ipurua jubilatuetxean.

Sukaldaritza lehiaketa

Apirilaren 30ean mendiko botak jantzi beharko dituzte nagusiek, izan ere, mendi ibilaldia egingo da Oiztunera. Irteera autobus geltokian izango da 16.00etan, eta otarteko eta edariak banatuko dira.

**Gaur hasita,
maiatzaren 9an
amaituko da
Hamabostaldia**

**Klima aldaketa
izango da aurtengo
gai nagusia**

Toka, Petanka eta Igel-toka txapelketak egongo dira maiatzaren 5ean Ipuruako Bolatokian goizeko 11.00etan, eta 17.00etan mahai jokoen txapelketa egongo da Beheko Tokian.

Hurrengo egunean 17.00etan, bestetik, Aitziber Cortazarrek 'Klima aldaketa' bideo-hitzaldia eskainiko du, berriz ere, oraingoan Beheko Tokian. Maiatzaren 7an Sos del Rey Catolico eta Javier ikusteko aukera izango dute nagusiek. Horretarako, irteera autobus geltokian izango da 08.30etan eta txangoaren prezioa 20 eurokoa izango da.

Hamabostaldiari amaiera emateko, maiatzaren 9an sukaldaritza lehiaketa egongo da Armeria eskolako frontoian. Patatak Errioxar erara prestatu behar izango dute partehartzaileek eta herri bazkaria egingo da ondoren. Lehiaketa 12.00etan hasiko da eta bazkaria 14.00etan. Prezioa, bestalde, 3 eurokoa izango da.

Tripa ondo bete ostean dantzarako aukera izango dute nagusiek. Izan ere, Pertsona Nagusiendako dantzaldia eta lehiaketaren sari banaketa egingo da 18.00etan Astelena Frontoian.

Garitena

1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

**Radio
Eibar**

CADENA
SER
104,0 FM



Kirolarixen ametsa izan biharko zana, amesgaizto bihurtu da. 2008xan Olinpiadak jokatuko dira Beijing-en (Txina), baiña momentuz ez dake antortxia be, eta arazuk izango dittu bertara ailegatzeko, gaiñera. Tibetanueri egindako genozidiuak, 1951tik oraiñ arte millioi bat tibetar hilda; Falung Gong-en aurkako genozidua; lan-zelaixetan lan bihartuetan daguezan milaka torturatua; adierazpen askatasun eza eta beste hainbat gauza leporatzen jako gobernu txinatarrari. Holan, Giza Eskubidien biolaziño horrek Beijing-eko Joko Olinpikueri boikota egittera eruan dabe jendia. Joko Olinpikuen erabillera politikua agerikua da. 1936eko Berlineko Olinpiadak Naziendako propaganda haundixa izan ziran, Hirugarren Reicha goraiatu baitzen. Moscuko 1980ko Jokoak, bestalde, erregimen komunistaren itxuria garbitzeko erabili ziran eta Holanda, Alemania eta Estatu Batuek boikota egin etsen. Kasu bi honek entzunenak badira be, politikoki oso garrantzitsuak izaten dira Joko Olinpiko danak. Momentuz antortxiari ez detse beran bidia trankil egitten laga, ia nora arte heltzen dan boikota.



Begoña Etxaide etxeakoandria

Ba ez dakat argi boikota egingo netsan edo ez, baiña hasiera batian esango neban txarto daguala boikota egittia. Joku Olinpikuak urte askuan behin izaten dira eta hori kentzia ez jata ondo begittantzen. Penia izango zan hainbeste denpora itxoiten egon ostian Olinpiada barik geratzia.



Faustino Pascual 67 urte, jubilaia

Kirola dana kirola da eta neri kirola asko gustatzen jatanez, nahixago dot gauzak holan izatia. Politikia beste kontu bat da, aparte jun biharko zana. Gero, ez dot ondo ikusten Txinak egitten dittuan gauza asko eta hori dana, baiña kirolian sartzia ez dot ondo ikusten.



Nuria Uriarte 40 urte, etxeakoandria

Ez, nik ez netsan boikotik egingo. Egi-xa esan ez nago gai horren gaiñian oso informauta, ez dakat holako gauzetarako denbora askorik eta ez dakitt zer esan, baiña nik ez netsan boikotik egingo. Txinak Giza Eskubidiak errespetatzen ez badittu, ez dot ondo ikusten, baiña boikotik ez netsan egingo.



Juan Antonio Arias 53 urte, metalurgikua

Bai, ni boikota egitiaren alde nago. Txinuak kabroi batzuk dira (barreak). Han adierazpen askatasunik ez dago, jendia torturatzen dabe eta baita zan-patu be. Tibetan inguruan gertatzen danaz ez gara ondo enteratzen, baiña argi dago herrialde honek askatasuna edukitzeko eskubidia dakala.

*Joko olinpikueri
boikota egin
biharko litxakixe?*

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

HERRI URRAT-S
SENPEREN

maiatzaren
11n

AUTOBUSA
Irteera: 09.30etan, Ego Gainetik
Buelta: 19.30etan **9 eurotan**

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

“Hauteskunde Legea aldatu behar dugu, guztiz bidegabeta delako”

Gaspar Llamazares Izquierda Unidako koordinatzaileak aurten egingo den Batzarrean postua lagatzeko asmoa agertu zuen, azken hauteskundeetako emaitzak jakin eta berehala. Gure herrian Errepublikak ospatzeko ekitaldietan izan zela aprobetxatuz, berarekin izan ginen.

- Zer moduz joan zen Errepublikak ospatzeko Elbarren egin zenuten eguna?

Euskal Herrian egoten naizen bakoitzean izaten dudana sentsazio berbera izan nuen. Horri gehitzen badiogu Errepublikaren aldarrikapenaren urtemuga ospatzen genuela, harrotasun puntu batera ere iristen zara.

- Zer da Elbar zure moduko errepublikazale baten ikus-puntutik?

Urtero ahalegintzen naiz Espainia osoan egiten diren ehundik gora ospakizunetako batzuetan parte hartzen. Lehen ere Eibarren egonda nago eta Ezker Batuakoa kideek jakinaren gainean ipini zitadaten aspaldi, askorendako Errepublikaren balioak, etika eta sentipena hemen zelan onartzen diren adierazten zitadenean.

- Errepublikaren erdua babetu arren, aukera errealek ikusten ditkiozu III. Errepublikari bati? Zelan sentitzen zara beste alderdiek Espainiako monarkia orokorri ditoten begikotasuna ikusita?

Alderdi bakoitzak nahi duen erara pentsatu dezake eta horren arabera jokatu. Gu errepublikazaleak gara eta hori jartzen dugu praktikan, errespetutik abiatuz beti ere. Hogeitabi urte dira Izquierda Unida osatu zela eta, ordutik, estatu federalaren alde egin dugu, hori bai, jakinda ez gara errepublikazaleagoak gure ideien alde sutsuki jotatuz eta besteen sinboloak apurtuz. Guk III. Errepublikaren al-

de dihardugu lanean, kasurik egin gabe orain unea ez dela esaten digutenei. Hori bai, eguneroko politikari lotuta gaude: langileen aldeko proposamenen bidez, esaterako, aurre egiten diogulako PSOE eta PP bat datozen politika neoliberalari.

- Azken hauteskundeetako emaitzel begira, IU ez da oso ondo irten. Zuk errua neurri handi batean bipartidismoari bota dlozu. Hainbeste eragiten du horrek, hirugarren indarra la desgertzeraino? Sistemaz aldatu beharra dago? Uste duzu lagako dizuetela?

Horri bota badiogu errua, horrela izan delako da: ez gehiago, ez gutxiago. Bipartidismo politikarekin, mediatikoak ere indar handia izan duelako. Hala ere, Iuren barruan autokritika ere egin dugu, zein akats izan ditugun ikusi eta hortik ondorioak ateratzeko. Baina bipartidismo hori eta proportzionalitatearekin zerikusirik ez duen Hauteskunde Legeak inoiz baino jasanezinago bihurtu dira. Orain kexatzen gara diotenei esango nieke hemerroteketan begiratzeko, hogeitabi urte daramatzagu eta gauza bera esaten. Gaur egungo hauteskundeak bi alderdi nagusien egiten die mesede eta, aldi, ez dago beste inor gu baino kaltetuago. Horrek konponbidea behar du, zuzena ez delako; Zapatero bera ere inbestiduran aldatetari batzorde batekin ekiteko prest agertu zen. Ikusiko dugu hitza be-



tetzen duen; guk mobilizazioak egingo ditugu kalean.

- Alderdi koordinatzaile izateari laga dlozu. Zergatik? Zer egingo duzu etorkizunean? Eta IUK?

Aurten egingo den Iuren IX. Batzarrean ez naizela aurkeztuko esan nuen hauteskunde gauean bertan. Hauteskundeetan hartutako erantzunkizunari erantzuten nion horrela. Ni ez nago politikan karguak izateko; horregatik, alde batera geratzea erabaki dut. Badira, bestalde, derrota batzuk (alderdiaren barruan ere bai) pentsatzen dutenak zenbat eta okerrago euren onerako dela. Ez dira konfaturaz oker dabilzala. IU-k gora egingo du: dena aurka izanda ere, milioitik gora boto jaso baitugu.

- Kanpaina Internet erabili duzue jendearengana gerturatzeko. Zelan joan zen? Hori da geratzen zaluaren biderik emankorrena?

Kanpaina freskoa eta irudimenez bete egiten ahalegin du ginen. Egunkari, irrati eta telebistan lagatzen diguten tarte dugu, besterik ez. Barne arazoak ateratzerakoan, hori bai sakontzen dutela. Hori aurre egiteko Internetek eskaintzen ditu bide berriak eta lagungarri izan da jendearen aportazioak jasotzeko.

- Gazteek politikari bizkar ematen ditela esaten da. Ados zaude?

Motibazio ezarena ez dut sinisten. Kanpaina bertan, unibertsitateetan izandako ekitaldietan ikusi dut hori ez dela horrela. Gertatzen dena da gazteek ez dutela sinesten bi alderdi handiek eskaintzen dizkieten “txeke-oparietan”, gaurko ogia eta biharko gosea besterik ez baitira. Arazo handiak ez dira benefizentziarekin konpontzen, baizik eta eskubideak bereganatuz eta guztiei aukerak eskainiko dien eredu ekonomikora jauzi eginez.

Lan Osasuna eta Maiatzaren 1a, eskutik oratuta

Apirillaren 28xan Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna gogoratuko da, lan segurtasunerako eta osasunerako erreferentia, baiña, zoritxarrez, ikusitta biharrian gertatzen diran istripu eta heriotzak, azken urtiotan aldarrikapenerako eguna be bada. Prebenziñuari bihar bezain beste arreta ez eskaintziaren ondorioz estatistikak urtetik urtera baltzaguak dirala salatzen dabe sindikatueta ordezkariak. Bihargiñen Nazioarteko Egunaren atarixan, lan osasunak (edo osasun ezak) protagonismuaren zati bat jaten detsa langille mugimenduaren omenezko egunari.

Hildako kopuruetan aldia egoten da, iturriaren arabera, baiña LAB sindikatutik helarazittako idatzixaren arabera, iaz 125 behargiñ hill eta millaka lan-istripu pasau zan gurian. Sindikatuordezkariaren berbetan, "batzuetan lan istripuak hiltzen gaittue eta beste askotan lan baldintzak ez deskue bizitzen

lagatzen. Sosiguz gure osasuna galtzen dogu. Behargiñ askok arrisku ergonomikuak, arrisku kimikuak, zaratia... jasan bihar izaten dittue eta ondorixuak ezagunak dira danondako: sorbalda, beso eta bizkarreko miñak, amasteko arazuak, alergiak, entzumenaren galera eta beste batzuk. Bestalde, bihargiñ gehixenak jasan biharreko



lan-karga haundixak, biharra amaitzeko epe motzak, erritmo azkarrak, lanaren kontrol gitxi, enkargauen modu txarrak eta presiñuak... arazo mentalak, kardiobaskularrak, nerbixuekin lotutakuak-eta, bihotzekuak jota hiltzeko arriskua haunditzen detse bihargin askori".

Horrelakuak gaur egun indarrian dagan eredu ekonomikuaren ezaugarrixi egotzi detse: "Eredu neoliberal honetan ahalik eta irabazi ekonomikorik haundixena lortzia da helburu bakarra eta, horren mesedetan, bihargiñen premiñak albo batera lagatzen dittue eta ez da dirurik gastatzen prebenziñorako neurrixetan. Argi dago bihargin askorendako biharrera juatia arriskutsu bihurtu dala".

Egoeria salatzeko astelehenarako deixa egin dabe LABetik, 12.00xetatik 13.00etara lanuztia egitteko eta Untzagan

12.15etan egingo dan konzentraziñuan parte hartzeko.

Manifestaziñuak hiriburuetan

Maiatzaren 1erako mobilizaziñuak deittu dittue sindikatu guztiak, hainbat lema erabillitta: ELA sindikatuak 'Langileak martxan' lelopean egingo dau aurtengo bere aldarrikapena; CC.OO-k, barriz, Maiatzaren Lehelenguan prekariedade euki nahi izan dau goguan, 'millaeuristekin' akordauta eta, horrez gain, prebenziñua eskatzen dabe, "beranduegi ez dadilla izan" azpimarrauta. UGTk Donostian egingo daben manifestaziñorako deixan lan istripuak, prekariedade eta diskriminaziñua gogoratuko dittu. Eta LABek, barriz, Iruñeara joko dau manifestaziñua egitteko, "Euskal Herri libre eta sozialista" aldarrikatzeko.

maiatzak

prekarietatearen
kontra zer gutxiago
mila baino

MANIFESTAZIOA DONOSTIAN

Alderdi Ederren, 12.00etan

Autobusak Arrate Hoteletik: 10.30etan

Lan gaixotasunak:

Beranduegi ez dadila izan

PREBENTZIOA ESKATU!!!

APIRILAK 28 Laneko Osasun eta Segurtasunerako Nazioarteko Eguna

Euskadi

Maiazak 1

STOP

LAN ISTRIPUAK
PREKARIETATEA
DISKRIMINAZIOAK

STOP

AUTOBUSA
10.30etan,
Ego Gainen

MANIFESTAZIOA
DONOSTIAN
12.00etan,
Alderdi Ederren

EUSKAL HERRIA
libre ta
sozialista

maiatzak 1

Manifestazioa 12.00etan
IRUÑEAN,
Golem zinematik irtenda

Eibarko Klub Deportibuaren eskutik, maiatzak tarte berezixa eskinduko detsa argazkilaritzari. Atzo bertan presentau eben aurtengo programaziñua: sei erakusketak, argazkilaritza digitalaren inguruko taillar bik eta argazki rallyxak osatzen dabe Argazkilaritza Maiatzean-eko eskintza. Atzera be, argazkilaritza munduko izen ezagun eta inportantien lanak bertatik bertara ikusteko aukera paregabia izango dogu.

Kalidadezko ARGAZKILARITZA jaun eta jabe MAIATZIAN

Argazkilaritza Maiatzean antolatzen daben Klub Deportibuaren egoitzan atzo arratsaldian aurkeztu eben hamendik egun gixira martxan egongo dan eskintza. Programaziñua antolatzeko orduan, Eibarko Udala-ren, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren, Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkartearen, Arrate Kultur Elkartearen, El Ambigú tabernaren eta Portalea tabernaren laguntasuna izan dabe.

Afrikako bizimoduaren argi-illunak

Gabriel Brau kataluniarrak 'Afrikako Argiak' lana aurkeztuko dau Portalean apirillaren 30etik aurrera. Iaz argazkilari-

tza arloko sari nazionala esku-ratu eban fotografuak zuribel-tzeko argazki-erreportaje bi-kaiña ipiñiko dau ikusgai. Ar-tistak berak diñuan moduan, "Afrikara lehen aldiz 1998. ur-tian jua nintzan eta hasieratik jakin neban esperientzia hori nere bizitzan inflexio-puntua izango zala. Ordura arte gitxi-tan urtetzen neban estudiantik, baiña bidaia hark argazkilaritza ulertzeko modua kanbixau zestan. Urte honetan Afrikako beste herrialde batzuetara bi-daiatzen segitzeko zortea izan dot eta euren bizi-esperien-tziak neri transmititzen jakin daben jendia ezagutzeko pri-bilegiua: aberririk bariko mun-duan bizi izatera derrigortu di-ttuan kondaira batek eratuta-ko tuaregak, Keniako masaiak, Maliko dogoiak eta Burkinako lobidak... danak, euren he-rrialdietako hedapen proze-suaren eragiñez, turismua era-kartzeko erabilliak. Banbara, bassari, mandinga edo konso bezalako herrixak, Omo bai-llarako surmak, mendebalde-ko lurretako peulak eta afar ederrak, Niger errekekako bozo arrantzaliak, Turkana lakuko dasanech nomadak... 'Afrika-ko Argiak' pertsona horien eguneroko bizimoduan eta



GOTZONE MERINO

ohitturetan egitten dan ibilbi-dia da eta, bide batez, euren ametsak eta itxaropenak kon-partitzen laga destela esker-tzeko omenaldixa".

Kobazuluak hiru dimensioñotan

Brau-ren argazkixekin bate-ra, Klub Deportiboko leize-ikerle batzordeko kidiak Deba arroko kobazuluetan etaratako argazkixak 3 dimensioñotan go-zatzeko aukeria egongo da. Kobazulueta sarrerak, sagu-

zaharrak eta hartz baten eske-letua relieben ikusteko mo-duan izango dira, bestiak bes-te. Iazko esperientziarekin ani-mauta, aurtan be filtro urdiñ eta gorridun antiojuak jantzi-tta, argazkixak sakontasun efektuarekin ikusteko aukerarik ez da faltauko. Antiojo berezi-xak erakusketaren sarreran ja-so eta bueltan lagatzekuak izango dira.

Artea zabortegixetan

Aittatu barri dittugun bi era-kusketeri laguntzen, 'City hope' liburua oiñarri dakan hiru-garren batek osatuko dau Por-taleko erakusketa-eskintza da-tozen egunotan. Hego eta Er-tamerikako zabortegixen ingu-ruan jende mordua bizi da: La esperanza (Guatemala), La Du-quesa (Dominikar Errepublik) edo Acahualinca (Managua) zabortegixak emoten dabene-tik bizi izatera moldatu diran komunitadiak dira.

**Sei erakusketa
izango dira
Deporren,
Topalekun,
Portalean,
Ambigún
eta Portaleko
tabernan**



JAVIER ARGENTIALLAS

Erakusketako 30 irudixetan Latinamerikako ehundaka lagunen bizimodua islatuta agertuko da. Javier Arcenilla argazkilarixak Munduko Medikuek GKEiarekin eta Cover agentziarekin alkarlanian kaleratutako liburuak Kazetaritzako Doñana sarixa jaso dau.

Bestalde, apirillaren 30etik maiatzaren 25era Topalekuan ikusgai izango dan Juan Angel Arrietaren 'Argia' erakusketan, egilliaren lanaren 35 urte laburbiltzen ahaleginduko dira. Batez be naturako elementuak inguratzen dittuan argixa izango da irudixetako protagonistarik haundiña.

Tabernak erakustoki

Eta beste bi erakusketa, ohiko aretuetatik kanpo, taberna giruan gozatzeko aukeria egongo da: El Ambigú eta Portalea tabernetan Klub Deportiboko Argazki Taldeko kidiak urte osuan egindako lanaren zatitxo bat bilduko dabe. Halanda be, eurak diñuen moduan, "ez da eibarren (edo beste lekuren batian) egitten dogun erakusketa kolektibo bakarra. Urtian zihar erakusketa asko egitten dogu eta sekula ez gara izaten argazki premiñan, gure lanak



JUAN ANGEL ARRIETA

ARGAZKILARITZA DIGITALA. TAILERRAK.

'El tratamiento en blanco y negro del archivo digital'

Egunak: maiatzak 9, 10 eta 11n.
Tokixa: Portalean (areto nagusian).
Ordutegixa: barixakuan 19.30etatik 20.30etara (aurkezpena); zapatuan 10.00etatik 14.00etara eta 16.30etatik 19.30etara; eta domekan, 10.00etatik 14.00etara.
Matrikulia: duan (argazkilaritza@gmail.com).

'Fotografía en 3D: anaglifos'

Eguna: maiatzak 17.
Tokixa: Portalean (areto nagusian).
Ordutegixa: 10.00etatik 14.00etara.
Matrikulia: duan (argazkilaritza@gmail.com).

ERAKUSKETAK

Apirilaren 30etik maiatzaren 31ra arte
Gabriel Brau. 'Afrikako Argiak'. Portalean.
Klub Deportiboko Leize Ikerle Taldea. 'Kobazuloak 3D'. Portalean.
Javier Arcenillas. 'City Hope'. Portalean.
27. Argizaiola Lehiaketa. Depor tabernan.
Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldea. **'Taldekako erakusketa'.** El Ambigú eta Portalea tabernetan.

Apirilaren 30etik maiatzaren 25era arte
Juan Angel Arrieta. 'La luz'. Topalekuan.

ARGAZKI RALLYXA

Eguna: ekaiñak 1.
Modalidadia: zuribaltzian eta digitalian.
Izena emoteko ordutegixa: 08-30etatik 09.30etara. Urteeria: Deporretik.

Deporreko Leize Ikerle taldeko Alfredo Divassonek 3 dimensiñoko argazkilaritzaren gaiñeko azalpenak emongo ditu.

kontaeziñak baitira. Taldeko argazkilarixok bihar haundixa egitten dogu, gure obra sor-

tzen eta garatzen ibiltzen gara, etanbarik, gure arazua tokixa da, gure lanak erakusteko tokixa eukitzia hain zuzen".

Hori dala eta, iaz geroztik euren argazkixak ikusgai ipintzeko beste toki bat dake: Portalea tabernia. El Ambigú taberna eskintzen detsen tokixarekin batera, herrittarrerri euren lanaren barri emoteko toki aproposak bihurtu dira tabernetako hormak.

Eta tabernetako erakusketak biribiltzen, Klub Deportibuaren

tabernako hormetan topauko dittugu Argizaiola saria jaso daben lan batzuk. Hasiera batian argazki onenak aukeratzen dizttuen Argizaiola sarirako, baiña gaur egun argazkilari sarituak gonbidatzen dittue eta eurak aukeratzen dittue erakutsi nahi dittuen argazkixak.

Doaneko tailarrak eta rallyxa

Erakusketak ez eze, argazkilaritza digitalaren inguruko tailar bi eskinduko dittue, duan: taillarretako batian zuri-baltzeko artxibo digitala izango dabe aztergai, Gabriel Brau-rekin, eta bestian, barriz, Leize Ikerle taldeko Alfredo Divassonek 3 dimensiñoko argazkilaritzaren gaiñeko azalpenak emongo ditu. Eta programia biribiltzeko, ekaiñaren 11an argazki rallyxa egingo da Eibarren, Klub Deportibotik abiatuta. Duda barik, irudixak oro har eta argazkixak batez be toki berezixa beteko dabe datorren astian abiatuko dan Argazkilaritza Maiatzean-en barruan.

AKONDIA



Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^a Jesus Blanco

Bitto Sarasketa, 12

☎ 943 12 74 15

MUGICA iturgintza

- GASA ETA ITURGINTZA
- ALTZARI ETA OSAGARRIAK
- BAINUONTZIAK eta HIDROMASAJERAKO KABINAK
- HANS GROHE GRIFERIA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU ERRADIATZAILEA



San Juan 15 - behea
Tfnoa. 943 201 030 / Faxe. 943 207 224



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR



Ekimenaren bultzaitzaileen berbetan, "autoan gidatzeko laguntza sistema modernoen artean, TomTom izango da Europan gehien hedatu dena. Ahots bat baino gehiago jar dakiokete sistemari, gidatzen duzun bitartean lagun zaitzan. Eta horien artean, instrukzioak eta argibideak euskaraz emateko saioa izan zen aurreko astean garatu genuena. Eibartarrak zerrendako Gariikoitz Araolaza partaideak egin zuen proposamena, eta boluntario batzuk azalduta, joan den barixakuan egin zen grabaketa".

Eibartarrak zerrendako boluntarioak

Azitaingo bulego batzuetan elkartu ziren boluntarioak, saioari ekiteko prest: "Ikeako sofa bat izan zen soinu-isolamendurako plataforma, tente jarrita. Kokein taldeko Jatsu Argarate musikaria izan zen grabaketa-



Barixakuko grabaketa saloan parte hartu zuen lan-taldea.

Eibartarrak posta zerrendak 10 urte bete berri ditu. Aurreko barixakuan, zerrendak urteak bete zituen egun berean, zerrendan bertan proposatutako ideia bat gauzatzeko urratsa eman zuten boluntario batzuek: TomTom etxearen autorako GPS nabigatzaileei euskarazko ahotsak jartzeko grabaketa saioa. Egun horri buruzko kronika jaso dute Eibar.org atarian, elkarte horretako kideak baitira boluntarioak. Horrelako adibideak ikusita, nork esan zuen euskera eta teknologia berriak bateratzeko aukerarik ez zegoela?

Tom Tom GPS nabigatzailea euskalduntzen

ren arduraduna, bere lagun Ander Barriuso soinu-teknikariak lagatako materialarekin. Ahotsak grabatzen lau blogari izan ziren, laurak Eibar.org elkarteako bazkide eta Eibartarrak zerrendako harpidedun: Iban Arantzabal, Amatiño, Mikel Iturria eta Leire Narbaiza".

Azken honek bere kronikan jasotakoaren arabera, "lauretarako elkartu eta pare bat ordutan itzulpenak eta grabazioak eginak genituen".

Grabaketak prozesatu ondoren, aurrerago deskargatzeko moduan jarriko dituzte Eibar.org-en, baina oraindik dena prest izan arte zain egon beharko du jendeak, "instrukzioekin dokumentatzen ahaleginduko gara, TomTom-a euskaraz berriketan jartzeko nola egin behar den azaltzeko".

10 urteko ibilbideko zerrenda

Nabigatzailea euskaratzeko saioa egin zuten egun berean jaio zen orain dela 10 urte Eibartarrak posta zerrenda, herriko internauta talde baten eskutik. Hastapen horretan partehartze zuzena izan zuen Luistxo Fernandezek gogoratzen duen moduan, "duela hamar urte, mezu hau bidali nuen posta elektronikoz: 'Gauza bat aurkitu dut Interneten: posta-zerrendak doan sortzeko makina!'. Eibartarrak zerrenda jaio zen



Jatsu Argarate arduratu zen grabaketaren arlo teknikoarekin, horretarako propio prestatutako mahalan.

egun hartan. Hamar urteren buruan, martxa bizian segitzen du, eta Eibar.org elkarte eta webgunea ere zerrendaren jardunari zor dizkiogula esan daiteke".

100 zerrendakide

Findmail eta Makelist izeneko bi zerbitzu paraleloren gainean sortu zen Eibartarrak zerrenda 1998 urteko apirilean. Zerbitzu aldaketa batzuen ondoren, 2004. urtean Postaria zerbitzura igaro zen zerrenda, eta Gmane izeneko artxibatze sistemara migratu zuten ordura arteko artxiboak: "Migrazio horretan, zenbaketa eta data-nahasketa batzuk gertatu ziren, baina lehen mezuaren haria haxe da. Lehen mezuaren data okerra da, baina 2. erantzunetik aurrera, apirilaren 18ko data ikusten da. Ez nago seguru lehen mezua egun horretakoa izango zen, ala lehenagokoa, baina tira, har dezagun apirilaren 18a zerrendaren jaio-tza-egun gisa".

10 urteko ibilbidean orotariko eibartarrak (eta Eibarkoak ez diren hainbat) batu zaizkio zerrendari (100 izateko lagun baten faltan daude) eta gai anitzen inguruko eztabaida ugari piztu dira zerrendako kideek idatzitako mezuetan.

AUTOEN

19. zkia. 2008ko apirila



...eta kiltol eta
Drogetenikurrri
aldizkarlen
gehigarria

gehigarria

**ZEZEN
BIDE
AUTO
ESKOLA**



**Auto, autobus, kamioi eta motorrentzako gida-baimenak
Teorikako irakaslea egun osoan**



GIDA-BAIMENAK

Ego Gain, 4 - behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 20 34 45

EIBAR

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**

Ugaritzen doazen motorzaleekin kezkatuta

Trafiko arduradunen kezketako bat motor-gidarien segurtasunaren ingurukoa da. Izan ere, motorzaleen arteko ezbehar-kopurua bereziki altua izaten ari da azken urteotan, kontuan hartzen badugu automobil baino askoz ere motor gutxiago ibiltzen dela errepideetan. Zilindrada handiko motorrek automobil-parkearen %8 baino ez dute osatzen, baina, hala ere, hildakoak eragiten dituzten istripuetako askotan tartean agertzen dira horrelakoak.

Hiri handietan motor kopuruak ikaragarri egin du gora eta askorentzat hiri barruan azkarrago mugitzeko alternatibarik



egokiena bihurtu dira. Hori dela eta, bereziki hiri-barruko motor-gidarien segurtasunerako gakoak landuko dituen planak diseinatzen hasiak dira. Zilindrada handiko motorren arazoa, berriaz, herrialde aberats eta garatuei lotuta agertzen omen da, "horietan jendeak horrelako ezaugarriak dauzkaten motorrak erosteko aukera duelako". Ildo berean, azken urteotan, uda garaian gertatzen diren istripuetan beste joera bat antze-man dute: "Zilindrada handiko motorrak ezbeharretan agertzen hasi dira eta, gehienetan, batzaz beste 35 urteko gidariak izaten dira, motor gainean urte bi baino gutxia-

Kontuz errailzainekin

Motor-gidariekin errepidean aurre egin beharreko arriskuak ez dira gutxi. Handienetakoa, edozein kolpe hartzekotan gorputza babesteko karrozeria eza da. Eta, horrekin batera, motorzaleen elkarrekin etenbarik salatutako zerbait: errailzainak. Teorian errepidetik ez irteteko pentsatuta dauden babeserako elementu horiek benetako arrisku bilakatzen dira motorren kasuan eta, poliki-poliki bada ere, badoaz aldatzen. Izan ere, orain arte erabilitakoek min handia egiten diete motor-gidariei eta, kasu askotan, kolpe hutsa izan behar zuenak zauri larriagoak eragin ditu azkenean.



TAILER MEKANIKOAK
VALDI

Autoen konponketa orokorra.
Injekzio mekaniko eta elektronikoa.
Alarmak, errobera aldaketak,
motorrendako erroberak...



Barakaldo 19, behea
Tel. 943 12 73 98
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



AUTO Aurrera KONPONKETAK

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/g
Telefono eta Faxa: 943 20 80 65

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)



LEJARDI aseguruak

Telefona. 943 20 11 49

Plaza Barria 8 20600 EIBAR

ESSO

- Autoen garbiketa
- Denda


HAMBRE gasolindegia



943 17 27 96

Goitondo z/g
48269 Mallabia Bizkaia

MOTOS IRLH
IÑAKI DEL REY HERMOSILLA



OTAOLA Etorb., 9 - 2. esk.
20600 EIBAR

MULTIMARCA
Salmenta eta Konponketa
Tel/Fax. 943 206 552
motosirh@telefonica.net

GIAUTO ELGOIBAR

Olaso poligonoa z/g
Tel. 943 74 85 98 / 629 29 40 22

MODELOA	MAT.	URTEA	KM	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ASTRA GTC 1.9 CDTI 120cv Sport (zilar)	DWJ	2006-II	23.000	Klimatizadorea, Llantak	15.990
ASTRA COUPE 2.2 DTI Bertone (urdin)	CPW	2003-XII	75.000	Klimatizadorea, Llantak	13.500
FOCUS C-MAX 2.0 TDCI GHIA (urdin)	CSG	2004	111.000	136cv, Klimatizadorea, Llantak, CD	14.500
MONDEO 5 ate TDCI Sport 136cv (beltz)	DGR	2005-III	27.000	Klimatizadorea, Llantak, CD	16.500
206 CABRIO 1.6i (beltz)	CSY	2004-IV	80.000	Klimatizadorea, Llantak, Larrua	9.750
207XS HDI 90 CV 3 ate (beltz)	FMN	2007-IV	29.000	Klimatizadorea, Llantak,	13.200
ESPACE 2.2 DCI 130cv (urdin)	BWT	2002-VI	115.000	Klimatizadorea	13.250
PASSAT VARIANT TDI 130cv Highline	CXT	2004-VII	93.000	Urdin, Liburua, Klimatizadorea, Llantak	17.500
PASSAT TDI 110 CV 4 ate (gris berun)	CLM	2003-VIII	107.000	Klimatizadorea, Llantak	12.250
LEON 1.9 TDI 110cv Sport (beltz)	DHP	2005	84.000	Klimatizadorea, Llantak	14.000
VIVARO 1.9 DCI 100cv Combi 9 (zilar)	DXX	2006	69.000	Aire Egokitua, Paq Elektrikoa	17.000
ZAFIRA CDTI 120cv Enjoy+Pack (beltz)	FSM	2007	6.400	Klimatizadorea, Llantak, Limitadorea	17.800
SAAB SPOROTHATCH 1.9 TID Vector	FLR	2007-III	15.000		25.800



Giauto
www.giauto.es
clientes@giauto.es



salmentak: 902 345 123
tallerra: 902 345 125



salmentak: 902 345 225
tallerra: 902 345 235




salmentak / tallerra:
943 763 347

Elgoibai
Bergara
Arasale

Elbar
Araola
Glaberna

Bergara



**ESTACION
DE SERVICIO
EIBAR, S.A.**

AVIA

FURGONETEN ETA AUTOMOBILEN GARBIKETA
AUTOMATIKOA ETA PRESIOAREKIN
LUBRIKATZAILEAK
GASOLEOEN ZUZENEKO BANAKETA

Tel. eta Faxe. 943 20 62 48
Tel. 943 20 70 31

Torrekua, 2 20600 EIBAR
eseibar@facilnet.es

Otaola 23, EIBAR

Carrocarias Jose

- Kleber kubieta
- Mekanika
- Txapa eta pintura
- Lehorketa laban
- Potro unibertsala
- Garabi zerbitzua
- Autobus eta auto konponketak

Tel. 943 12 05 48 / Faxe. 943 20 36 07 / Mobil. 629 48 15 90





R.A.C.V.N.-ren
ordezkaritza

J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L.
D.G.S. 1.408 - J



ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Urtzaile 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxe. 943 70 28 87 EIBAR

Drogak antzemateko kontrolak ugaritzen


Alkoholaren kontrako kanpainekin ohituta gaude eta, oro har, gidari gehienek onartzen dute alkohola edan ondoren erreflexuak motelago ibiltzen direla eta, beraz, errepideak eta trafikoak eskatzen duten arretak behera egiten duela, istripuren bat gertatzeko arriskua areagotuz. Ez da hala gertatzen, baina, gure arreta eta erreflexuei ere eragiten dioten beste substantzia batzurekin. Azken hilabetetean horiei erreparatzen hasi dira errepideetako kontroletan eta, lehenengo emaitzei begiratzean, bat baino gehiago harrituta geratuko zen droga-proba egin eta zenbat gidarik positibo eman zuen jakitean.



Gidarien droga-kontsumoa aztertzekeo ideia ez da beste barietate sortu: hildakoak eragin dituzten istripuen %10ean, gidariari azterketa egin eta positiboa ematen zuela ikustean hartu zuten horrelako kontrolak egiteko erabakia. Hortik ondorioztatu zuten errepideetan uste baino jende gehiago dabilela hainbat drogaren eraginean gidatzen, horrek dakarren arriskuarekin.

Eraginkortasuna zalantzan

Hala ere, kontrol eta azterketa mota horren inguruko zalantza ugari dago oraindik. Oro har, proba gidariaren txistua edo odola aztertuta egiten dute, baina jende asko kexatzen da positiboa eman arren, droga noiz hartu den argi geratzen ez delako; izan ere, droga gehienak gorputzean arrastorik lagatzen ez dutenerako egunak pasatu behar izaten dira eta, jakina, eragina ez da bera gidatzen hasi baino ordubete lehenago hartu denean edo, aldiz, pare bat egun lehenago zerbait kontsumitu denean. Horregatik, azterketa horiek gehiago zabaldu eta zehaztu bitartean, hutsune modukoak hor jarraituko du.



Motos
Luis del Rey
SALMENTA ETA KONPONKETA / MARKA GUZTIAK
Barrena, 48 943 120 293 - Fax: 943 208 768
20600 EIBAR (Gipuzkoa) motasuluisdelrey@gmail.com

Tailer **ad** profesionalak

ZORKI
AUTOAK BEHAR DUEN GUZTIA
Otaola 7 EIBAR Tel. 943 70 21 31

Barrena, 40 Tf/Fax: 943 70 06 47 Mobila: 689 80 91
64
a.leonardogutierrez@euskalnet.net
AUTOMATISMOS LEONARDO
ATE BASKULAGARRIAK
ATE INDUSTRIALAK, etb.
KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA
BANAKOAK ETA TALDE-GARAJEAK
MANDO SALMENTA


PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Herberts industrial
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

GASOLEOEN BANAKETA

LAster Otaola etorbidea, 13 · Bis
helbide berrian ZABALIK
Barrenengua, 3 Tfnoa. 943 20 73 74 Faxa. 943 20 70 91

Eusko Jaurlaritzak ez dio lagako UNI Eibar-Ermua BHI-ri Gaueko Batxilergorako aurrematrikula epea zabaltzen. Honen ondorioz galdu egingo litzateke, behin betiko, Gaueko Batxilergoa, baina UNI-ko arduradunak hori ekiditeko lanean dabilta. Itxaropena galtzen den azken gauza dela aipatzen du Antxon Narbaiza zuzendariak.

ANTXON NARBAIZA

Uni Eibar-Ermua BHI-ko zuzendaria:

“Aurrematrikula egitea eskatzen dugu gutxienez”

- Zeln arrazoi eman dituzte Gaueko Batxilergoa kentzeko?

Betiko kontua izan da: matrikula baxua dela. Hala ere, gauza hau duela urte bi hasi zen. Orduan ere Gaueko Batxilergoa kendu nahi izan ziguten: Eibarko Udalak lagunduta, protesta bat egon zen eta azkenean ez ziguten kendu. Iaz, matrikula baxua zenez hainbat traba ipini zizkiguten eta ez zuten matrikulatzen laga. Gauza da Gaueko Batxilergoak 3 maila dituela, horrela, mantentzen zen bakarra 3.a zen, eta orain esan digute hau ere ezabatu egingo dutela.

- Zeln da zuen planteamendua?

Gaueko Batxilergoa oso berezia da, izan ere, ikasleen tipologia oso berezia da. Horrela, bere bizi guztian ikasketetan justu-justu ibili den pertsona bat egon daitekeeta gabaz bere giroa aurkitzen du, konplexuz beteta dator, eskizofrenikoak ere... denetarik eduki dugu. Gero, esan behar da hau zerbitzu publikoa dela eta zerbitzu publikoa den aldetik, guk eskatzen dugu aurrematrikula egiten lagatzea, gutxienez. Zenbat ikaslek emango duten izena jakin arte, itxaron egin behar dutela uste dugu. Ikaslerik ez badago, ez dugu klaserik emango, baina ezin da ezer erabaki zenbatek izena emango duten jakin aurretik. Hor gabilta borrokan.

- Nola egingo dlozue aurre hartutako neurri horri?

Administrazioari idatzi diogu eta erantzunaren zain gaude. Bien bitartean Udalarekin gaude berbetan eta euren laguntza jaso dugu. Horrela, Udalean mozio bat aurkeztuko dute Ezker Batuak eta Aralarrek, eta ea aurrera irtetzen den zain gaude.


- Itxaropenik badaukazue?

Itxaropena da azkena galtzen, ezta? (barreak). Nik gure filosofia azpimarratuko nuke, hau da, zerbitzu publikoa dela eta beste kontu oso garrantzitsu bat: aukera berdintasuna. Izan ere, hemen inguruan ez dago Gaueko Batxilergorik, horrela, Bilbora, Donostiara edo Irunera joan behar harko litzateke Gaueko Batxilergoa egin nahi duenak. Beraz, neurri hau hartzen bada, gure eskualdea txirotzen edo galtzen irtengo da.

- Zelntzuk dira erabaki horregatik kalitetuenak?

Ordutik kanpo ikasten dutenak. Haue-tariko asko lana egin ostean datoz eta ikastea nahi dute, gero Goi Mailako Ziklo bat egiteko, Unibertsitatera joateko (Batxilergoa eginez ez baita azterketa zail bat egin behar) edo dena delakoa.

- Gaueko Batxilergoaz gain prestakuntza ziklo batzuk ere kendu dituzte, ezta?



Antxon Narbaizak itxaropenari eutsi behar zaiola dio, arazoa onartzen badu ere.

Bai, baina hori beste kontu bat da administrazioarentzat. Guk eskatu dugu gauze ezin bada, arratsalde emateko ziklo hauek. Gainera, gero ikusten dugu Elgoibarren bai ematen dutela, beraz, kontu honetan falta izan dena eskualdeko planifikazioa izan da. Ezin baita izan, adibidez, guk ziklo bat edukitzea eta Armeria Eskolak ziklo berbera edukitzea, horrela, ikasleak banatu egiten baitira zentro bien artean.

- Zenbat ikaslek erabiltzen zuten Gaueko Batxilergoa?

2. mailan 7 zeuden soilik, baina 3. mailan 30 ikasle zeuden. Badago irakasgai bi dituen lagunik, horrela, leporatzen digutena da ez dutela aurrera egiten eta oso pobrea dela horretarako irakasleak mantentzea. Baina guk esaten dugu zerbitzu publiko bat dela eta gutxienez eskaintza hor egon behar dela, gero ikuskariek esan dezatela “aurten ezin da eman, baina agian datorren urtean bai”, gauza da libre lagatzea beste urte batzuetarako, baina euren filosofia ez da horrelakoa.

foto

orain
Urki 17 an gaude

erreportajeak

ezkontzak

estudioa

943 20 27 16
688 64 73 44

JAUJA

KATU
TABERNA



KALE
BIDEBARRIETA, 1

teen-ajeak



*Emeritz Gamboak
19 urte darama
dantzan. Kezka
Dantza Taldeko kidea
da eta ahal den heinean
dantzan jarraitzea
nahi du. Hori da,
bemetan, dantza
zaimetan eramatea.*

"Arratiako jotak dantzatzea gustoko dut"

- Nolaz hasi zinen Kezka Dantza Taldean?

Bost urterekin hasi nintzen dantzan. Amak apuntatu zidan, izan ere, orduan ez nekien dantza egitea gustoko nuen ala ez. Orain bai, badakit. Izan ere, ia 20 urte dantzan egoteko, gustokoa izan behar duzu.

- Zela da gehien gustatzen zaizun dantza?

Arratiako jotak eta Zube-roa ditut gustokoen.

- Dantza egiteko zela leku aukeraturiko zenuke?

Arriaga antzokia, adibidez.

- Taberna batean dantza egitea zaila da askotan.

(Barreak) Bai, taberna ba-

tean dantza egiteko oso leku gutxi izaten da askotan.

- Kezkakoek, dantza egiteaz gain, asko bidalatzen duzue.

Bai. Aurretik York-era joango dira, ni ezin naiz joan. Duela urte bi Belgikara joan ginen eta Balentzian, Salamanka eta leku askotan egon gara.

- Nolaz arte daukazu dantzan egiten jarraitzeko asmoa?

Medikuntza ikasten ari naiz, beraz, MIRa egin ostean ikusiko dut egoera nola den. Hala ere, ahal den heinean dantzan egiten jarraitzea gustatuko litzaidake.

Informatikaren bilera Tolosan

Teknologia berrien garai hauetan encounter-ak gauza arruntak bihurtu dira. Zer da encounter-a? Informatika zaleen eta profesionalen bilera jendetsuak dira, eta bertan ezagutzak elkarbanatu eta informatikarekin zerikusia duten ekintza ezberdinak egiten dira hainbat egunetan zehar. Asteburuan honelako ekitaldi bat egingo da Tolosan, Gipuzkoa Encounter 2-a hain zuzen ere.


Jarduera ezberdinak hartuko ditu Tolosako Usabal kiroldegia gaur hasi eta domekara arte. Horrela, arte digitalean lehiaketa ezberdinak egingo dira (3D irudiak, 2D irudiak, Wild compo...), joku lehiaketak egingo dira (Counter Strike 1.6, Pro Evolution Soccer 2008...), Software Librea jorratuko da, Modding-tailerra

egongo da, hitzaldi eta tailer ezberdinak egingo dira, Internet Eskola egongo da herritarrek internetera hurbildu daitezkeen eta, guzti horrez gain, beste jarduera batzuk egingo dira (Singstar, Euskalneten SOS Freaks lehiaketa, Guitar Hero, pelikulen bikoizketa, maskota lehiaketa, argazki lehiaketa eta abar).

400 pertsona inguru

HP-ren Switch ProCurve-ri esker 1.000 mbps-ko konexioa lortuko da sarean eta euren arteko lotura 10 Gigabit/s-koa izango da. 400 pertsona inguru bilduko dira Tolosako Usabal kiroldegian eta 2.500 metro karratu erabiliko dituzte partehartzaileek. Lehiaketetan, bestalde, 10.000 euro banatuko dira guztira.

Antolatzaileek aipatu dutenez, Eibarko partehartzaileek egingo dira Gipuzkoa Encounter 2-an. Horrela, gure herriak bere ikurra utziko du Gipuzkoan egiten den informatikaren bigarren bileran.



HOROSKOPOA

ARIES

Iraganeko gauza asko gogoratuko dituzu hurrengo egunotan. Nostalgiaz beteriko egunak izango dira eta oso gustora gogoratuko dituzu. Esaten dute iraganeko edozein momentu izan dela hobea goa. Zuk zer uste duzu?

TAURUS

Asteburu beroa pasatuko duzu, Taurus maitea. Desioa, pasioa, ezingo dizute esan gatz eta piperrik ez duzunik. Hori bai, bikoterik ez baduzu bat lortu beharko duzu asteburu bero hori bete ahal izateko. Zorte on!

GEMINI

Noiztik ez dituzu lagunak zerbaitezara gonbidatzen? Ez duzu poltsikotik ezer ateratzen zuretzat ez bada! Gero, laguneri zerbaitez eskatzen joaten bazara, ez zaitez harritu ezezkia ematen badizute. Ondo merezita duzu!

CANCER

Astroak zure alde egingo dira aste honetan. Edozer gauza eginda ere emaitza onak lortuko dituzu. Horrela, aprobetxatu datozen egunak aspaldi pentsatu dituzun gauzak egiteko, dena ondo irten-go zaizu-eta.

LEO

Joan den astean gertatu zitzaizun gauza bat izango duzu buruan datorren egunetan. Kontzientzia ez daukazu oso garbi, baina ez dago atzera bueltarik eta gertatu zena onartu behar duzu. Hurrengoan hobeto pentsatu ezazu.

VIRGO

Egunerokotasunean arazoak izango dituzu datorren astean, hainbat oztopo izango dituzu bidean. Hala ere, gogotsu ekingo diozu asteari eta oztopo horiek gainditzeko gai izango zara, hori bai, kontu handiarekin ibili.

LIBRA

Beti esan duzu naturazalea zarela, ozono geruza zaindu behar dela eta abar. Baina orain birziklatu ere ez duzu egiten! Zer kostatzen zaizu ba? Etxean gauzak banatu eta zaborrontzi ezberdinetara bota zaborra, besterik ez.

SCORPIUS

Gehiago exijitu behar diezu ingurukoei. Beti eman eta eman zabil-tza, eta zer jasotzen duzu zuk? Oso ona zara, argi dago, baina ez zaitez tontoegia izan. Behar duzuna eskatu, merezi duzu-eta. Jasoko duzu, gainera.

SAGITTARIUS

Irribarre egitea doakoa da eta zoriontsua izatea ere. Beraz, zer kostatzen zaizu haserre egotea baino irribarre egitea? Ondo pentsatzen baduzu, ez daukazu haserre egoteko motibo handirik. Zure zenbakia aste honetan: 10.

CAPRICORNIUS

Agintzeko gogoia piztuko zaizu eta denak zure agindupean egotea nahi izango duzu. Diktadore hutsa zara, edo zuk nahi duzuna egiten da, edo ez da ezer egiten. Esata kolpea jasango duzu horrela jarrituz gero.

AQUARIUS

Denbora aurrera doa, etengabe, tik-tak tik-tak. Aurrera doa eta zuk ez duzu aurrera egiten, geldi geratu zara denboran. Korranteak ere ezin zaitu eraman. Aurrera begiratu behar duzu, beranduegi izan baino lehenago.

PISCIS

Gaixotzeko aukera asko izango dituzu datorren astean. Duela denbora asko ez zarela ohean gertatzen gaixo egoteagaitik eta horrela jarraitu nahi baduzu, badakizu, zaindu zaitez. Astea pasatakoan joango da arriskua.

"Ukuilua" VIII. Bideo Lehiaketaren irabazle

Martitzenean banatu ziren VIII. La Salle Bideo Lehiaketaren sariak. Nerea Beristain, Julia Gauger, Ander Gallego eta Josune Fernandezek 'Ukuilua' lana izan zen garailea DBH-koen mailan. 2. postua, berriz, Erika Rodriguez, Nekane Luque eta Ana Fernandezek 'Ketchup' lanak jaso zuen. Irabazleek 100 euroko saria jaso zuten eta bigarrenak 65 euro.

Lehiaketaren antolatzaileek aipatu zuten "alde nabarmena" zegoen lan hauen eta aurkeztu ziren besteen artean. Guztira 40 ikasle inguruk hartu zuen parte lehiaketan, 8 lan aurkeztu ziren; partehartzaile guztiak La Salle ikastetxeak izan ziren.

Aldaketak datorren urtean

Batxilergoko mailan ez zen lanik aurkeztu, beraz,



Martitzenean banatu ziren VIII. edizioko sariak Errota Gaztelekuan. Irabazleak erakutsitako maila oso altua izan zen.

hauei zegokien saria eman gabe geratu da. Kontu honek eta La Salleko ikasleak bakarrik aurkeztu izanak, datorren urtean hainbat aldaketa egitea planteatzera eraman dituzte antolatzaileak.

Lehiaketa nola indartu aztertzen ari dira lehiaketaren antolatzaileak. Honen gaine-

an, Mari Jose Telleria Euskara eta Kultura Zinegotziak aipatu zuen lehiaketa hau 'Asier Errasti Ikusentzunezko Jaialdiaren' barruan sartzeko aukera planteatzen ari direla. Honen bitartez lehiaketa biak indartzea nahi dituzte, baina aztertzen ari diren kontuak dira oraindik.



Paradoja kuantikoak / garaia azalberrian

Udaberriko sasoi batean gaudenik ezin ukatu azken astean errepatatuko albisteak aztertuz gero; emakume transexual baten -orain gizon bezala bizi dena alegia- haurdunaldiak, bere bikotekidearen antzutasunari erremedio jartzearen alde, astindu ditu bazterrak, hautsak eta kontzientziak, kolektibo transexualean, gizartean orohar eta teknologiaz baliatutako haurdunaldien bideratze irizpide protokoloetan. Australia aldean alaba bat ezagutzen ez zuen bere aitaren bila joan, maiteminduta, ezkondu eta alaba baten guraso bilakatu, zoriona eta desioa jaun eta jabe nahiz-eta zuhaitz genealogikoan sekulako nahastea ekarri. Aipatuko dudana azken adibidea Espainiako gobernuaren osatu berria historian inoiz ikusi ez dena, zazpi hilabetez haurdun dagoen eta emakumea den politikari katalana Ejerzito-ko eta Defentsako ministra izendatu dute berriki. Zailtarik gabe zenbait eredu zaharkituak kolokan eta ezbaian dira nabarmen. Komentatutako berriak, dinamismoaren muturrak dira eta oraindik tamalez albiste, baina begibistan uzten dute erronka; berreraikitzea eta pluraltasuna gailentzen hasiak direla gure munduan, norbanakoen desioak eta biografiak indartsuak eta benetako irizpide izango diren politikek, legeek eta kulturek ezartzen dituzten ereduak malgutasunez ezartzen badira, aniztasunaren alde betiere.

**Ana Olarzun
Maitena Zubia**
(SEXOLOGOAK)

Alemaniarrek Insti-koekin elkartrukean

Eguraldia lagun, giro onean ederki asko igaro dute astea Institutoko ikasleen kide alemaniarrek. Hiriburu batzuk ez ezik, Eibar ere ezagutu zuten eta azken egunean, gainera, graffitiz koloreztatu zuten eskolako aterpea, elkarri agur esan baino lehen; egun hori, gainera, literatura eta argazki lehiaketako sariak emateko baliatu zuten Institutokoek.



Eibar KEko nesken taldeak mailari eutsi dio

Larri azken unera arte. Unben Zarautzen kontra jokatu zuten partiduan, Eibar KEko neskek ez zuten inolako lasaitasunik izan eta partiduko azken jokaldian ere baloiak eibartarren atea inguratu zuen, jokalarien ezinegonarekin sortuz. Berdinketarekin nahikoa zuten eibartarrek mailari eusteko eta hori izan zen eman zen emaitza: 52. minutuan aurreratu ziren gorri-urdirak, Eneritz Txopitearen golarekin, baina,

hurrengo jokaldian zarautzarrek berdintzearekin batera, gauzak berriro estutu ziren zaletu guztiendako. Azkenean, doi-doi izan bada ere, trantsiziozko denboraldia (jokalaria gazte asko sartu da taldean) modu onean amaitu da.

Euskal Federazloko Kopa

Zapatuan Kopako XIII. edizioa hasiko da eibartarrentzat: Oartzun hartuko dute Unbeko beheko zelaian, 13.30etatik



aurrera. Hurrengo domeka bietan ere partidua izango dute eibartarrek: maiatzaren 4an Barakaldoren aurka Unben; eta 11n Añorgaren zelaian. Bestal-

de, jubenil mailako Federazio-ko Kopan, Leioa izango da eibartarren aurkaria (domekan, 17.00etan, Ipuruan; itzulerako partidua maiatzaren 4an).

Judoko Udaberri torneoa Kalamuako instalazioetan

Gure herriko judo klubaren instalazioetan jokaturako modalitate horretako Udaberri torneoan, benjaminareko lau mailatako lehiak izan ziren, honako emaitzekin: urrezko domina Markel Simon, Eneko Errasti, Unai Arizaga eta Unax Simonentzat; zilarrezko domina Marcos Mateo, Eneko Ramon, Pablo Valle eta Asier Sebastianentzat; eta brontzezkoa Jon Alberdi,

Markel Zendoia, Ander Muñoz, Beñat Gomez eta Alen Lopezentzat.

Natalia de Dios Espainiako txapelketan

Bihar eta etzi 23 urtetik azpiko Espainiako txapelketa jokatu da Madrilen eta han izango da Kalamuako Natalia de Dios, orain dela hamabost egun jokaturako fase sektorean sailkatu zen judoka.



Natalia de Diosen fase sektorean lortu zuen txapelketarako sailkapena.

Foball-zaletuen liga amaiera lidergoa erabaki gabe

Durango eta JoseAutosen arteko lehia bizia ligako azken jardunaldiarte iritsi da eta asteburuan jokatu beharreko jardunaldi horretan izango du azken emaitza. Gaur egun JoseAutosek daraman puntu bakarreko alde hori erabakigarria izan daiteke, biak faborito baitira euren neurketetan eta azken jardunaldiotan, gainera, nagusitasun osoz irabazi dutelako. Horren froga izan dugu azken jardunaldia: Durangok Akats 8-1ekoarekin egurtzen zuen bitartean, JoseAutosek 6-0koarekin saritzen zuen Eitek.

Ligako azken jardunaldian honako neurketak izango ditugu Unben: zapatuan, Tanke-mans-Eitek (08.30), Teknografik-Akats (10.00) eta Durango-Azkena (11.30); eta domekan, JoseAutos-EzDok (09.00), Vivaldi-Aguinaspia (10.30) eta Txoko-Sporting (12.00). Emozioak azken unera arte iraun dezan-edo, seguruenik Durango izango da zapatu gaueko liderra eta JoseAutosek berreskuratu egingo du lidergoa hori domeka goizean, batek zein besteak irabazteko moduko neurketak baitituzte.



Otxoa Memoriala Odei Gilentzat

Kadeteen mailako Otxoa Memorialaren XLVIII. edizioa jokatu zen domeka eguerdian eta Sicesal taldeko Odei Gilek hiru laguneko esprintean irabazi zuen Urkizuko helmugan. Irabazleak ia ordu bi (01:58:49) behar izan zituen 74 kilometroak betetzeko eta guztira 59 txirrindularik amaitu zuten proba. Taldekako sailkapena Anpok irabazi zuen, Azpiru eta Galdianoren aurretik.

Deporreko xake taldearen denboraldi biribilena

Bigarren taldeak ere mailaz igotzea lortu du azken asteburuan eta, emaitza horrekin, xake taldearen aurtengo denboraldiari erremate bikaina eman diote. Helburua lortzeko berdinketa behar zuten Eibar B-koek eta hori egin zuten Hernanin, bina berdinduz (Olabe eta Freire irabazle, Larreategi eta Baena gal-

tzaile). Sailkapenean 3. postuan gelditu dira eibartarrak, Elgoibar eta Tolosa-Ibarraren atzetik. Aurten lortutako igoera biek, datorren urtean Eibarko Klub Deportiboak ordezkariak izango ditu Gorengo eta 2. mailan. Datozen asteotan eibartarrak Groseko Udaberriko txapelketa irekian hartuko dute parte, ekainaren 14ra arte.

Eskubaloiko jubenil mailako Espainiako fase sektorea Ipuruan

Gaur hasita, eta domekara arte, Ipurua kiroldegian jokatu da eskubaloiko jubenil mailako Espainiako txapelketarako dauden zortzi fase sektoreetako bat. Arraterekin (Euskadiko 2.a) batera, Bartzelonako San Marti Adrianenc (Kataluniako 3.a), Pontevedrako BM Cangas (Galiziako 2.a) eta Barañaingo SD Lagunak

(Nafarroako 1.a) izango dira lehian. Euren arteko partidetatik, sailkapeneko lehenengoak bakarrik eskuratuko du aurrera jotzeko txartela. Arrateren jubenil mailako taldeak gaur Lagunak-en aurka jokatu du (20.30etan), bihar San Martiren kontra (17.45etan) eta etzi eguerdian Cangasen aurrean (12.30etan).



Arrateko jubenilak Euskadiko Ligako bigarrenak izan ziren, Bidasoa lehenengoarekin berdinduta.

Kencik eta Mondainek 2. postuan jarraitzen dute

Areto-foballeko gure eskualdeko talde bi horiek irabazi egin zuten beste behin eta sailkapen bakoitzeko 2. postuari eusten diote: Kencik 5-3 irabazi zion Tribuna Norteri Gipuzkoako 2. mailan, Ivan, Alex, Agirre, Eneko eta Imanolen gol banarekin; jubenil mailako Re-lojes Mondainek 6-2 garaitu zuen Lauburu, Alexen lau golekin eta Pa-


blo eta Jonathanen banarekin. Kadeteetan, bestalde, Debarrena aurretik ipini bazen ere (2-0), azkenean amore eman zuen Laskorainen aurrean (2-9).



Udaberri Sariko bost pelota partidu Armeria Eskolan

Gaur arratsaldean jokatu dira bi, 20.00etan hasiko den jaialdian: hasteko, Eibarko Klub Deportiboko ordezkarien arteko lehia (Karmona Egañaren aurka) eta, jarraian, Lagunako Agirrebeña eta Belokiko Viana neurtuko dituen. Bihar beste hiru partidu jokatu dira eszenategi berean: lehenengo biak eibartarren

artekoak izango dira (jubenil mailako Unamunzaga eta Zubizarretaren artekoa eta senior mailako Etxaniz eta Labakaren artekoa), azkenean Lagunakeko Portuk eta Lapkeko Barrerosek lehiatzeko. Biharko jaialdia goizeko 11.00etan hasiko da eta, gaurkoaren moduan, Udaberri Sariaren barruko partidu guztiak buruz-burukoak izango dira.



Roland Holke eta Jorge Beorlegi.

Escuderia Eibarko hiru ordezkari Narceako rallyan

German González eta Roland Holke, Jorge eta Fernando Beorlegi anaiek lagunduta, Eibarko auto gidarien eskuderia ordezkatu dute, Luis Andikoe-txea eta German Núñez bilbotarrek osatutako taldearekin batera. Hiru talde, beraz, FEVA Iparraldeko Txapelketarako baliagarria den Cangas de Nar-

ceako rallyan; bihar jokatuko den proba txapelketa horretako bigarren proba da eta 300dik gora kilometro izango ditu. German Gonzálezek 1982ko Ford Escort bat gidatu du, Roland Holkek 1975eko Seat 127 bat eta Luis Andikoe-txeak 1982ko VW Golf GTI-a, beste 50etik gora gidarekin batera.

Tupi-Azpirentzat foball-aretoko finalisima

Finalean R.K.C.-ri 3-2 irabaziz, XIV. Eibarko foball-areto txapelketako Kopako fasearen finalisima bereganatu du Tupi-Azpi taldeak. 3. eta 4. posturako, bestalde, Recreativo emaitza berarekin gailendu zaio Dream Team taldeari. Aurretik jokatutako finalerdietan, Tupi-Azpi azken txapeldunak 5-2 irabazi zion Recreativori eta R.K.C.-k, bere aldetik, egurtu egin zuen Dream Team (6-1).

Jesus Telleria, Espainiako txapelduna iraupeneko eskian

Master II mailako modalitate klasikoan onena izan zen Deporrek eski taldeko ordezkaria, 10 kilometroko proban; eta distantzia bereko skating modalitatean 2. postuan geratu zen. Jesus Telleria Candanchun jokatutako iraupen eskiko Espainiako

txapelketan Euskadiko selekzioarekin parte hartu duen Eibarko Klub Deportiboko hiru ordezkarietako bat izan da; beste biak Naia Carballo eta Leire Garate izan dira. Carballo 4. postuan sailkatu zen seniorretan eta Garatek brontzeko domina irabazi zuen juniorretan, 5 kilometroko kla-

siko modalitatean jokatutako probetan. Aurrekoetz gain, Naiak Tolosako beste mutil birekin osatutako taldeak 12. postua eskuratu zuen 3x5km errelebo mistoetan (Carballo klasikoan hartu zuen parte eta mutilek skatingean).




Txapelketan parte hartu duten Deporrek hiru ordezkariak.

Astelena, txapelketako partidu gehien izan duen frontoia

Horrela jarraituko du izaten, gainera, pelota Katedralean buruz-buruko txapelketako final laurdenetako partidu bi Astelenan jokatuko baitira. Aurreko asteburuan ere Bengoetxea VI.a eta Leitza-ren artekoa jaso zuen frontoia maiatzaren 4ean eta 11n beste neurketa garrantzitsuen lekuko izango da. Horrela, Aimar Olaizola txapeldunak maiatzaren 4ean hasiko du bere ibilbidea Oinatz Bengoetxeari aurre egin; eta, astebete geroago, Barriola eta Patxi Ruiz izango dira, nor baino nor Eibarko frontoian. Neurketa horietako sarreraren prezioa 40 eta 50 euroren artekoa izango da.

Pelota txapelketak atsedena hartuko du asteburu honetan; hala ere, Astelenako jaialdiak ez du kale egin-



go eta domekan, arratsaldeko 17.00etan hasita, honako hiru partidu jokatuko dira: Galartza V.a eta Eulate vs Olazabal eta Lasa III.a; Xala eta Goñi III.a vs Mtnez. Irujo eta Lascurain; eta Uriarte eta Arizmendi vs Cabrerizo eta Urberuaga. Sarrerak gordetzeko, 661-259-009 (Olaya) zenbaki telefonora deitu dezakete interesatuek.

Hércules-Eibar bihar arratsaldean

Arratsaldeko 18.30etan hasiko da bihar Eibar KEak Alacanteko Hérculesen aurka jokatuko beharreko partidua. Andoni Goikoetxeak zuzentzen duen taldea sailkapeneko erdialdean dago kokatuta, eibartarren atzetik eta, orain arte, kanpoan jokatutako partiduetan

etxekoetan baino askoz hobeto moldatu da: horren froga dugu Ipuruan zein erraz nagusitu zen. Eibarko jokalariei dagokienez, bederatzi hilabeteren ondoren Etxabe berriro jokatze-ko prest dagoela da berririk aipagarriena. Rauli eta Altunari, bestalde, ekografia bana egin zaie.



Anartz Esteban onena izan zen Lasturreko bolatokian

Asola-Berriko bolariak zazpi txirilo bota zituen Gipuzkoako XXXIX. hiru-txirilo bolo txapelketako 4. jardunaldian. Lasturren 69 bolarik hartu zuten parte eta eibartarra irabazle argia izan zen, txirilo biko aldeak kendu baitzion jarraitu zion laukoteari: Jon Cid taldeki-dearekin batera, San Migueleko Imanol Osoro eta Xabier eta Ander Loiolak osatutakoari. Emaizta horrekin, San Migueleko Angel Ibarluzeak jarraitzen du lidergoan (18 txirilo), Asola-Berriko Ganix Rodríguez aurretik (15); euren atzetik Asola-Berriko beste bi, Anartz Esteban

eta Juan Luis Rodríguez (14); eta bosgarren postuan Eibarko hiru-txirilo taldeko beste ordezkari bat, Bittor Astigarraga (13). Beraz, Asola-Berriko bost ordezkari liderarren atzetik.

Bestelako sailkapenei dagokienez, Asola-Berri A da taldekako liderra, 54 punturekin (8ko aldeak ateratzen dio San Miguel A-ri). Bikoteka, Xabier Loiola eta Angel Ibarluzea liderra dira nagusi eta Lehendakari Sarian Ganix Rodríguezek jarraitzen du agintzen.

Hurrengo jaurtialdia Eibarko Asola-Berriko bolatokian jokatuko dute biharkoan, arratsaldeko 17.00etan hasita.

Arratek bihar ekingo dio berriro Ligari Vigon

Kopako kanporaketetan maila bikaina erakutsi eta gero, Allianz ligako azken hiru jardunaldiei egingo die aurre Asobaleko gure herriko ordezkariak. Lehenengo partidua bihar jokatuko dute eibartarrek Vigon, hango Academia Octavioren aurka; neurketa 18.00etan hasiko da eta Arratek baja garrantzitsua izango du, Jurkiewicz poloniarra lesioatuta baitago. Hurrengo jardunaldia denboraldi honetan Ipuruan jokatuko den azkena izango da: Torrevella izango da aurkaria eta zaletuek aukera izango dute taldeak aurrean egin duen denboral-diarengatik jokalariei eskertzeko.



Viktor Debre entrenatzailea Hungariara bueltatu daiteke.

300 ume eskolarteko antzerki erakusketan

Agurtu berri ditugun Antzerki Jardunaldiek jarraipena izango dute datozen egunotan, Debabarrena Eskolarteko Antzerki Erakusketaren XXIV. edizioari esker. Umeak antzerkiaren mundura gerturatzen joatea helburu duen ekimenak orotariko antzezlanak batzen ditu egitarauan: umeek eurek prestatu eta taularatutakoak eta baita talde profesionalak eskainitakoak ere. Eibar eta inguruko beste herrietan antzeztuko diren lanetan gure eskualdeko ikastetxeetako 300 bat ume hartuko du parte. Horrez gain, talde profesionalen eskutik 10 emanaldi eskainiko dira, gehienak euskeraz. Horien artean, Juan Ortega eta Txema Cornago antolatzaileek batzuk azpimarratu nahi izan zituz-



Eskoletako umeek prestatutako antzezlanak talde profesionalenekin uztartuko dira.

ten: maiatzaren 7an, 20.30-etan La Mancha antzerki taldeak 'La olla de Plauto' lana eskainiko du Coliseoan. Eta egun bi geroago, Barakaldoko Bai taldeak 'Flash!!!' antzezlan eskainiko du. Sarrerak ohi-

ko bideei jarraituta erosteko aukera izango da, euro bitan. Gainontzeko emanaldi profesionalak doan izango dira, Hezkuntza Esparruan batzuk eta Elgoibar eta Ermuko antzokietan besteak.

Laburrak

DANBORRADAREN ENTSEGUAK

Azken asteotan sanjuanetan danborradan parte hartzeko entseguak egiten dihardute eguazteneko, baina datozen astean, apirilaren 30ean ez da entsegurik egingo, antolatzaileek aditzera eman dutenez. Hurrengo astean, maiatzaren 7an bueltatuko dira lanera, 19.00etan umeak eta 20.00etan nagusiak, Urkizun Udalak duen lokalean (Amalur ohian).

GURUTZE GORRIKO IKASTAROA

Maiatzaren 10etik ekainaren 7ra ur-sorospen ikastaroa emango du Gurutze Gorriak Ipurua kiroldegian. 50 orduko ikastaroa izango da eta zapatuetan emango dute, 09.00etatik 20.00etara. Informazio gehiagorako San Lorentzoko autopista-sarerraren aldamenean dagoen Gurutze Gorriaren egoitzara jo daiteke edo, nahiago izanez gero, 943176248 telefono zenbakira deitu daiteke.

IKASTEN

Azken orduko aldaketa batzuk medio, Felix Etxeberriak atzo eman beharreko bideokonferentzia atzeratu egin da, maiatzaren 15era arte eta gauza bera gertatzen da 'Bitácora de Terranova' izenburuko hitzaldia-ekin. Data gerturatzen doan heinean ekitaldiei buruzko informazio zehatzagoa emango dugu.

ARMERIA ESKOLAK SARIAK

Armeria Eskolak Debabarrena, Debagoiena, Durangaldea, Lea Artibai eta Urolako ikastetxe publiko zein pribatuetako DBHko azken urteko ikasle taldeei dei egiten die, Armeria Eskola Sarien VII. Edizioan parte hartzeko. Maiatzaren 19tik 23ra aurkeztu ahal izango dira lehiaketan parte hartzeko proiektuen maketak eta irabazleentzat sari garrantzitsuak daude (1.500 euro lehenengoarentzat eta 900 euro bigarrenarentzat).

Keinu eta musika bidezko antzezlan ikusgarria



Coliseo antzokiak antzezlan berezia hartuko du maiatzaren 3an (zapatua), 20.30etatik aurrera: Orto-Da konpainia israeldarrak 'Stones' lana taularatuko du, Euskal Herri mailako estreinaldian. Musika eta mimikan oinarritutako lanean sei aktorek hartzen dute parte eta eskultura bati bizitza ematen diote: Hitlerrek Europar garaipena lortu izan balu, haren balizko garaipenaren eskulturari, hain zuzen.

Orto-Da konpainia Israeldarra.

Orain arte antzerako muntaiarik ez dela Eibarren ikusi azpimarratu zuten Juan Ortegak eta Udaleko Kultur arduradunek. Antzeleran sari ugari jaso du orain arte erakutsi den jaialdietan eta datozen hilabeteotan Portugal, Brasil, Amerikako Estatu Batuetan eta Korean antzeztetako da. Sarrerak 12 eurotan salgai ipini dituzte, ohiko tokietan: Coliseo antzokiko lehiatilan, Telekutxan eta www.kutxa.net helbidean.

Cielito Musika Bandaren kontzertua

Domekan, apirilaren 27an, Cielito Musika Bandak kontzertua eskainiko du Coliseo antzokian 12.30etatik aurrera. Astebruru hone-tarako prestatutako programa hau da: 'Guadix' (pasodoblea,

F. Azpiazu), 'Gigantes y cabezudos' (aukeraketa, Fdz. Caballero), 'Espíritu olímpico' (mar-txa, J. Williams), 'El fantasma de la ópera' (aukeraketa, F. Lloyd Weber) eta 'El barbero de Sevilla' (obertura, G. Rossini).





Unibertsitatan generua

Azken urtietako joeria argixa da: unibersidadiak andra izaeria daka. Datuak orokorrian hartzen badoguz, azken ikasturtietan matrikulatzen diran ikasle gehixena andrazkua dala konturatuko gara. Gaiñera, oñ arte andren ikasketa moduan kontsiderau izan diranetan, nagusixak gara, baiña tradiziñoz gizonezkuenak izan diranetan be, (ingeniartzak, medikuntza, ...) proportziñoak izugarri hasi dira bardintzen eta askotan, hauetan be andrazkuak nagusitzen.

Ondorioz, UEUra hurbiltzen diran ikasliak be eta UEUn lan egitten dogunon perfilla be antzerakua da. Lantaldetik 19 andrazkuak gara, Zuzendarixa eta Idazkari Nagusixa barne. Markeskuako kasuan, gaiñera, bertan gizonezko bakarra dakagu. Lagun batek esaten zeban moduan, "nagusi eztaikit baiña gehixengua bai".

Eibarko ikastaruetan parte hartzen dabenen perfila hola kua da:

- %70 batian andrazkua,
- %60xan gipuzkuarra eta bati bat eibartarra,
- erdixak 25-35 urte bittarte kuak
- eta unibertsitate ikasketekin.

Argi dago, unibersidadiak andra izaeria dakala, baiña oindiokan gizonezko aurpegixa mantentzen dabela.

Ane Sarasua
(UEUko IDAZKARI NAGUSIA)

Zezenketarako girotzen joateko koadroak

Eibarko Artisten Elkartek, Zuloagaren familiarekin batera, margolariaren omenez maiatzaren 11n Eibarren egingo den zezenketarako girotzen joateko ekimena abiarazi du: herriko dendetako erakusleihoetan herriko hainbat margolarik egindako koadroak ikusgai egongo dira, beti ere Ignazio Zuloaga zena eta margolariak zezenekiko izan zuen zaletasunak inspiratuta. Ezaguna da Zuloagak zezenekiko sentitzen zuen lilura eta bera lanaren zati handi bat zezenketen munduari eskaini ziola.



Eibarko zezenzaleen batzordeak antolatutako zezenketan, Luis Francisco Esplá eta Ivan Fandiño toreatzaileek eta Pablo Hermoso de Mendoza burtzikariak hartuko dute parte, Guardiola Domínguez en 6 zezenekin. Sarrerak herriko hainbat tabernatan eskuratu daitezke, 35 eta 80 euro bitarteko prezioan. Erreserbak egiteko, bestalde, 652700914 telefono zenbakira deitu daiteke, 10.00etatik 20.00etara eta, bestela, e-mailez, honako helbidean: comisiontaurina-de-eibar@gmail.com

Kontzertu bi Ryder tabernan

Gaur eta bihar gauean kontzertu bana eskainiko da Ryder tabernan, egun bietan 23.00etatik aurrera. Gaur gauean herriko talde baten txanda izango da: Beer Band boskoteak 60, 70 eta 80ko hamarkadetako rock abesti ezagunen bertsioak eskainiko ditu. Iaz sortutako taldea Jon Larreategik (baxua eta ahotsa), Erik Dezak eta Mikel Gauger-ek (gitarra eta koroak), Nestor Arriabalagak (saxoa eta pianoak)



eta Leo Morandik (bateria) osatzen dute.

Bihar, berriz, rock doinu go-

gorrak ekarriko dituzte Raizdx taldekoek. 2002an sortutako talde donostiarrak hainbat maketa, CD eta bideoklip eginak ditu aurretik ere. Iker Amezaga (gitarra), Raul Abuin (ahotsa), Guido L. De Vicuña (bateria) eta Beñat García (bajua) euren azken lanarekin izango dira Ryderrean: 'Pasen y besen' iaz grabatutako lana aurkeztuko dute. Taldearen musika entzun eta deskargatzeko moduan daukazu www.raizdx.net helbidean.

Grabaketa estudio berria San Agustinen

Herriak lehen grabaketa estudioa izango du datorren astetik aurrera. Play Records-ek San Agustin kaleko bulego batean ekipo hauen instalazioa egiteko lizentzia eskatu zuen, eta Aritz Arrieta izan da proiektua aurrera eraman duena. Horrela, herrian talde txi-



Aritz Arrieta bere estudioan.

kien eta bakarkakoen grabaketak egiteko toki bat egongo da, hauek euren maketa eta CD-ak egin ditzaten.

San Agustineko bulegoa egoera berrira egokitzeko, Aritz Arrietak kontrol-mahai bat, estudioetako mikrofono amerikarra, ordenagailuak eta CD grabatzaileak erosi behar izan ditu. Bestalde, estudioa intsonorizatu egin behar izan du, horrela, 46 metro karratuko toki bat zena, 20 metro karratuko batean bihurtu da isolamenduaren ondorioz.

Aritz Arrieta Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziatua da. EHU-n ikasketak egin ostean, ikusi zuen Eibarren ez zegoela grabaketa estudio pribaturik, beraz, hutsune hori betetzera animatu zen. Arrieta kontzertuak antolatzera eta musika taldeen ordezkaritza lanak egiteko prest agertzen da, eta horrez gain, irratirako lanak, CD-ak eta maketak egingo ditu.



EKHI BELAR

Gerra zibilari buruzko hitzaldia

Emilio Majuelo historialariak '1936: Gerra Zibila eta Errepresioa' izenburupean hitzaldia eskaini zuen martitzen arratsaldean, ..eta kitto! Euskara Elkartek hilean behin antolatzen duen 'Illunabarrian' programaren barruan. Hitzaldia ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan izan zen eta bertaratutakoek gaiaren inguruko galderak egin eta hizlariarekin berbetan jarduteko aukera izan zuten. Emilio Majuelo Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea da eta hainbat liburu argitaratu du Gerra Zibilaren eta errepresio frankistaren inguruan.



LEIRE ITURBE

Zirkua eta flamenkoa gaztetxearekin

Aurreko asteburuan ez ziren aspertu Tallarra gaztetxera gerturatuak: Iruñeatik zuzenean etorritako artistek zirkua eskaini zuten eta, argazkian ikus daitekeen moduan, flamenko-dantzetan trebatzeko aukerarik ez zen falta izan.



LEIRE ITURBE

Deba Beheko prestakuntza eskaintza ezagutu nahi dutenek badute oinarritzko tresna bat: Zerikasi. IMHK Eusko Jaurlaritzako laguntzarekin martxan jarri duen programa da eta Leire Alberdi, Olatz Arriola eta Ana Garro dira proiektuaren arduradunak.



ANA GARRO (ZERIKASI): "Biztanleria aktiboa eta partehartzailea sortu nahi dugu"

- Zertan datza Zerikasik?

Ikasketa iraunkorrerako dohaineko bitartekaritza zerbitzua da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Prestakuntza sailak, bizitza osorako prestakuntza bultzatzeko egiten ari diren ekimenen artean, bitartekaritza zerbitzuko sare bat sortu du. Eskualde mailako zerbitzuak dira eta 18 daude guztira. Zerikasik plataforma informatiko bat dauka eta bertan Deba Behean dagoen prestakuntza eskaintza guztia agertzen da. Ez kurtso formalak bakarrik, esperientzia informalak ere euren lekua dutelako, hau da, bizitza osoan zehar ikasten dugun guztia sartzen da. Guk egiten duguna bitartekari lana da. Interesa duten Deba Beheko pertsonak eskualdean dagoen eskaintzarekin kontaktuan jartzea da gure lana. Plataforma informatikoaz gain, laguntza pertsonaleko zerbitzua ere eskaintzen dugu, horrela, nondik jo oso argi ez daukatenak orientatu egiten ditugu.

- Zeln abantaila ekarriko ditu Zerikasik?

Abantaila nagusia espazio bakarra dela da. Honez gain, neutroak izatea da gure nahia, hau da, prestakuntza erakunde bati besteari baino mesede handiagoa egin gabe aritzea. Espazio bakarrean informazio dena lortzea eta elkarte ezberdinekin zuzeneko kontaktuan ipini ahal izatea da abantaila handiena

- Zeln da ekimen honen helburua?

Biztanleria aktiboa eta partehartzailea sortzea da gure nahia, horrela, Zerikasi hortan laguntzen duen instrumentu bat da.

- Norentzat dago zuzenduta Zerikasi?

Printzipoz, pertsona guztientzat zuzenduta dagoela esango nuke, baina ezarri digute 25 urte baino gehiago dituztenentzat dela. Prestakuntzatik urrutiago dauden pertsonen zuzenduta dago agian: gizartetik kanpo gertatzeko arriskuan dauden pertsonak, nagusiak eta abar, nahiz eta azkenengo hauek nik uste asko mugitzen direla eta 'saltsa' askotan sartuta dabilazala.

- Zeln da zuen funtzioa?

Pertsonak hartzea, hauek orientatzea, eta momentuan dagoen prestakuntza eskaintza eta pertsonen interesen artean bitartekaritza lana egitea.

- Zerikasi duela gutxi jarri da martxan, baina aurretik lan handia egin behar izan duzue, ezta?

Bai. 2007ko azaroan hasi ginen lanean eta ordutik martxora arte (Zerikasi martxan jarri zen momentua) erakunde ezberdinekin kontaktuan jartzea izan da gure betekizuna. Horrela, prestakuntza akzio ezberdinekin eta erakundeekin kontaktuan jarri, ezagutza eman eta abar izan dira gure lanak. Orain, pertsonak hartzen hasi gara eta ezagutza ematen saiatzen jarraitzen dugu, azken finean, jendeak ez badu parte hartzen honek ez du ezertarako balio izango.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udalzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak....	943 46 46 22
Gurutze Gorria....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapata: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapata: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDAKO.** Asteleneetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapata-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDAKO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapata-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.18. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

GIRO POLITA

ZAPATUAN, hegoaldeko haizeak lagunduta, **tenperaturak gora** egingo du; maximoak 27 °C inguruak izango dira. Arratsaldean haizea iparraldera aldatu eta hodeiak ugaitu egingo dira; zaparrada botako dituzte, arinak orokorrean. **DOMEKAN** tenperaturak behera egingo du eta euri gehiago egitea espero da.

25 barixakua

MANIFESTAZIOA

19.30.- Amnistiaren aldeko mugimenduaren aurkako auzia salatzeke manifestazioa. Untzagan hasita.

KONTZERTUA

23.00.- Beer Band. Ryder tabernan.

26 zapatua

IPUIN KONTALARIA

18.00.- Kandelen argipean. Begoña Gómez-ekin. Umeen Liburutegian.

KONTZERTUA

23.00.- Raizdx: 'Pasen y besen' Cd-aren aurkezpena. Ryder tabernan.

27 domeka

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

ESKOL ANTZERKIA

16.30.- 'Munstroak akatu' (Teatro mutante antzerkia, Bizkaia, profesionala). Herriko antzokian (Elgoibar).

28 astel lehena

LAN-UZTEA

12.15.- Ordubeteko lan-uztea prekaritate salatzeke. LABek deitua. Kontzentrazioa Untzagan.

NAGUSIEN HAMABOST.

16.00.- Juan Luis Mugerza oroigarria. Pertsona Nagusi- en ibilaldia.

29 martitzena

IKASTEN

09.30.- 'Visiones del hombre'. Hezkuntza Esparruan. 16.00.- Nekazaritza ekologikoa. Portalea.

LA SALLE ASTEA

14.30.- Baloi erraldoia. 16.45.- Herri-kirolak guraso eta irakasleen artean.

29 martitzena

NAGUSIEN HAMABOST.

16.00.- Txokolate-jana. San Andres egoitza. 17.00.- Bideo-hitzaldia: 'Klima aldaketak'. Dinamizatzailea: Aitziber Kortazar (Debegesa). Ipurua jubilatutxean.

EIBAR ZINE KLUBA

21.30.- 'Tierra' (dokumenta- la). Sarrera: 3'5 euro. Coliseo antzokian.

30 egutia

LA SALLE ASTEA

09.30.- Meza. 10.15.- Olinpiadak. 12.15.- Erreleboak eta sari banaketa. La Salle.

NAGUSIEN HAMABOST.

16.00.- Mendi-ibilaldia, Oiar- tzunera (irteera autobus gel- tokitik).

DANBORRADA

19.00.- Umeen entsaioa. 20.00.- Nagusi- en entsaioa. Bittor Sarasketako lokalean (Amalur ohia).

BERRIAK 5 URTE

19.30.- Berria egunkariaren 5. urteurrena. UEUKo egoi- tza (Markesua Jauregia).

3 zapatua

ANTZERKIA

20.30.- 'Stones' (Orto-Da). Sarrera: 12 euro. Coliseo ant- zokian.

lehiaketak

Sanjuanak 2008

Eibarren kartel lehiaketa

Epea: **Maiazaren 16ra arte.**

Informazioa:

Pegora eta Portalean.

Alkohol larregi edatearen

kontrako pegatina lehiaketa

Epea: **Maiazaren 16ra arte.**

Informazioa:

Pegora eta Portalean.

Eskola Agenda 08-09 azala

diseinatzeke lehiaketa

Epea: **Maiazaren 16ra arte.**

Informazioa:

Pegora eta Portalean.

Armeria Eskola Sariak

Epea: **Maiazaren 19tik 23ra.**

Informazioa: Armeria Eskolan.

5 astel lehena

NAGUSIEN HAMABOST.

11.00.- Toka, petanka eta igel-toka txapelketa. Ipurua bolatokia. 17.00.- Mahai-jo- koen txapelketa, tute, mus, briska, domino eta seieta. Beheko Tokia jubilatutxean.

6 martitzena

ESKOL ANTZERKIA

15.00.- 'Zubi gizakiak' eta 'Txir- rarrak eta txinpurriak' (Itzio BHI). Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

16.00.- Nekazaritza ekologi- koa. Portalea.

NAGUSIEN HAMABOST.

17.00.- Bideo-hitzaldia: 'Kli- ma aldaketak'. Dinamizatzai- lea: Aitziber Kortazar (Debe- gesa). Beheko Tokian.

EIBAR ZINE KLUBA

21.30.- 'Viaje a Darjeeling'. Sarrera: 3'5 euro. Coliseoan.

7 egutia

NAGUSIEN HAMABOST.

08.30.- Txangoa Sos del Rey Catolicora eta Javierrera. Ir- teera autobus geltokitik.

ESKOL ANTZERKIA

20.30.- 'La olla de Plauto' (La Mancha konpainia profe- sionalarekin, helduentzat). Sarrera: euro bi. Coliseo ant- zokian.

8 egutia

ESKOL ANTZERKIA

15.00.- '6. maila bukatu dut', 'Irakasle gaiztoak', 'Ezusteke bisita' eta 'Sendagile eroa' (San Andres ikaste- txea). Hezkuntza Esparruan.

diru-laguntzak

UEUKo matrikularako

Zenbatekoa: Matrikularen erdia.

Epea: **Maiazaren**

30era arte.

Non: Pegoran.

erakusketak

Apirilaren 27ra arte

Íñigo Manterolaren
margo erakusketa.
Topalekuan.

Apirilaren 30era arte

Cristina Azpiriren
margo erakusketa.
Espaloian -Elgeta-.

'20 urte EH zeharkatzen'.
Deporreko mendi
taldea 1988-2008.
Deporreko tabernan.

'Aratosteak 2008'.
Deporreko Argazkilaritza
Taldea. *Ambigü eta*
Portalea tabernetan.

Maiatzean

EJuan Angel Arrieta.
'Argia'. *Topalekuan.*

Javier Arcenillas.
'City Hope'. *Portalean.*

Gabriel Brau. 'Afrikako
Argiak. *Portalean.*

Leize-ikerle taldea.
Portalean.

Deporreko Argazkilaritza
Taldekoeen erakusketa.
Ambigü eta Portalea
tabernetan.

Argizaiola Saria.
Depor tabernan.

ikastaroak

Erretzeari lagatzeko

Noiz: *maiatzak 13, 20*
eta 27; ekainak 3, 10
eta 17; uztailak 1.

18.30etatik 20.00etara.
Matrikula: Doan. Pegoran.
Epea: Maiatzak 8.

Discosana jaietan tailerra

Drogekin lotutako
arriskuak gutxitzeko.
Hartzaileak: Txosna eta jai
batzordeetako kideak.

Noiz: *ekainak 9 eta 11.*
18.00etatik 20.30etara.
Matrikula: Doan. Pegoran.
Epea: Ekainak 5.

Argazkilaritza

G. Brau: 'El tratamiento
en b/n del archivo digital'.
Noiz: *maiatzak 9, 10, 11.*

Prezioa: Doan.
Informazioa: Deporren
(www.deporeibar.com).
Izen-ematea: argazkilaritza
@gmail.com.


Fotogr. en 3D: Anaglifos

Noiz: *maiatzak 17.*
Prezioa: Doan.
Informazioa: Deporren
(www.deporeibar.com).
Izen-ematea: argazkilaritza
@gmail.com.

denborapasak



Aurkitu hemen 15 EUSKAL ABIZEN.



Aurrekoaren
SOLUZIOA


zinemazinema



untzaga
"Los falsificadores"

ZUZENDARIA:
Stefan Ruzowitzky
AKTOREAK:
Karl Marcovics, Martin Brambach,
August Diehl, Devid Striesow...

II. Mundu gerra laster amaituko dela uste
dute Alemaniako agintariek. Gerra ira-
bazteko azkenengo plana jarriko dute
marxan: euren etsaien herrietan diru fal-
tsua sartuko dute, herri horietako ekono-
miak lur jo dezan...



coliseo
"Tierra"

ZUZENDARIA:
Mark Linfield & Alastair Fothergill
AKTOREAK:
Aldo Nadi, Lauren Bacall,
Pedro Regas, Patricia Shay...

Lurra leku izugarri polita dela erakusten
du dokumental honek. Hartzak, elefante-
ak, lehoiak... ikusiko ditugu, inoiz erabili
ez diren teknikak erabilia, eta era bere-
an, bizi dituzten arazo eta arriskuak age-
rian geratuko dira...

farmaziak

25. barixakua

GOIZEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

26. zapatua

GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

27. domeka

GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

28. astelehena

GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

29. martitzena

GOIZEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 20)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

30. eguaztena

GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

1. eguena

GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

2. barixakua

GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezila, z/g)

3. zapatua

GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

4. domeka

GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

5. astelehena

GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

6. martitzena

GOIZEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

7. eguaztena

GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

8. eguena

GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

9. barixakua

GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

hildakoak

- Jose Luis Fernández Cuesta.
59 urte. 2008-IV-17.
- Fernando Bolunburu Lasa.
50 urte. 2008-IV-18.
- Ciriaca Uyarra Santamaria.
74 urte. 2008-IV-20.
- Josetxo Anitua Aranzabal.
43 urte. 2008-IV-22.
- Antonio Valcárcel Conde.
87 urte. 2008-IV-23.

jaiotakoak

- Lukas Del Campo Agirre. 2008-IV-11.
- Eider Moreno Abarrategi. 2008-IV-14.
- Ane Navarro Valentín. 2008-IV-17.

sanerak salgai

DOKUMENTALA

'Tierra' (BBC).

Apirilak 29, 21.30.

ANTZERKIA

'Stones' (Orto-Da).

Maiazak 3, 20.30.

'Flash'.

Maiazak 9, 20.30.

ETXEBIZITZAK

- Elgetan borda salgai. 2.200 m²ko lur sailarekin. Tel. 678-980204.
- Santiañes, 22 - 3. eskuman pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. Gasa. Igogailua. 39.000.000 pta. Tel. 619-547188.
- Etxea behar da alokairuan. Tel. 662-239392.
- Soroluzeko Rabal kalean pisua salgai. 64 m². Logela bi, egongela, sukaldia eta komuna. Tel. 658-339709.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 3 logelakoa. Erreferentzia eta abalak. Tel. 677-074051.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-662911.
- Salamancan etxea konpartitzeko ikasleak behar dira datorren ikasturterako. Tel. 676-081717.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-061112.
- Isasin pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldia, bainugela eta komuna. Berria, guztiz jantzita. Dena kanpora eta berogailua. Tel. 627-095017.
- Barrena 36an pisua salgai. 80 m². Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. Despentsa eta ganbara. Igogailua eta kaldera. Terraza eder bi. Tel. 679-410100.
- Legarreko dorreetan pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldia, komun bi. Balkoia eta despentsa. Eguzkitsua. 48.500.000 pta. Tel. 653-733357.
- Jardinetan pisua salgai. Logela bi, egongela, sukaldia-jangela eta komuna. Berriztua eta balkoiarekin. 195.000 euro. Tel. 636-438918.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-380238.
- Eibarren edo inguruan pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. Tel. 625-265942.
- Bikoteak Eibarren pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 680-579670. Egoitz.
- Debarrean pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 662-239392.

SALEROSKETAK

- Vending negozioa salgai (14 makinarekin). Prezio interesgarria. Hilean 1.500 euroko etekina lorgarri. Tel. 638-479909.
- Portanezko bigarren eskuko amasodorea erosiko nuke. Tel. 943-701082.
- Musika ekipoa salgai. MCD-201 modelo, mando eta bozgorailu birekin. 150 euro. Deitu 20.00etatik 22.00etara. Tel. 943-530667.
- Disko-jogailua erosiko nuke. Tel. 676-556739. Inaki.
- Tintin-en abenturen bideoak salgai (14). Zortzi euro. Tel. 943-120030.

AUTOAK

- Opel Omega salgai. Gasolina. Oso merke. Tel. 610-395630.
- Opel Vectra GT 2.0 salgai. 130cv. AIT eta udal zerga ordainduta. 1989koa. Tel. 637-704715. Ander.
- ADRIA karabana salgai, abantzearekin. Barruan gordeta egon da. Tel. 659-621308.
- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaia-tzeko 5 plaza, 4 lo egiteko. Sukalde guztiz ekipatua, igo daitekeen sabaia, berogailu estatikoa eta jarleku giratorioak. Dutxa, tolo eta bizikletak eta eskiak eramateko. 75.000 km. 2003 urtekoa. Egoera onean. Tel. 658-710899 edo 685-725840.

Iragarkiak ipintzeko:
943-200918 (Marisol).

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako
PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak, garajeak:
 alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak: 10 euro.
Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

LANA

- Kamarera eta sukaldari-laguntzaile behar dira asteburuetarako. Esperientziarekin. Tel. 943-121262.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. 09.30etatik 16.00etara. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 660-441505.
- Magisteritzako ikasle eibartarra umeak zaintzeko prest. Tel. 677-108554.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Egunez edo gauez. Tel. 686-234612.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Egunez edo gauez. Tel. 671-476869.
- Medikuntzan lizentziatua behar da Eibarko zentro psikotekniko baterako. Ordutua. Tel. 943-208600 edo 667-995929. Mari Asun.
- Mutil gaztea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, kamarero edo artz lana egiteko. Tel. 686-545884.
- Ingeniaritza Kimikoan lizentziatuak klase partikularak emango lituzke DBH eta Batxilergoan. Tel. 685-797220. Jaione.
- Publizitate banaketa egiteko pertsona behar da. Tel. 627-561790.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketa egin eta sukalde laguntzaile lanetarako. Tel. 656-781742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-995941.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 627-031640.

- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 628-077867. Bernarda.
- Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 616-305808.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 679-910991. Vitoriana Ana.
- Emakumea behar da garbiketa lanetarako. Autoa izatea ezinbestekoa. Tel. 679-950907.
- Psikologoa behar da Eibarko Zentro Psikotekniko baterako. Tel. 667-995929 edo 943-208600.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 618-175692.
- Emakume euskalduna behar da Elgoibarran 16.30etatik 20.30etara umeak zaintzeko. Tel. 650-497989.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 626-876186.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 646-235195.
- Emakume eibartarra eskaintzen da umeak zaintzeko, goizez eta arratsalde. Tel. 639-044748.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 617-635744.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 638-726007.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta kamarera lana egiteko. Esperientziarekin. Tel. 608-719981.
- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. Tel. 677-858244.
- Neska eskaintzen da sukalde laguntzaile, garbiketa lanak eta umeak zaintzeko. Tel. 666-146666.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-380238.

...eta musu bat zuretake


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobe eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, LUIS eta MIREN, astelehenian urrezko etzeiak ospatzen dozue-eta. Egun ona pasa eta jarraitu zorionsuak izaten urte askuan. Familixaren partez.




Zorionak, JONE eta SERGIO, maiatzaren 3an ezkontzen zarie-eta. Egun ona pasa eta aldameneko aittita eta amama bezain zorionsuak izan zaitteziela urte askuan.



Zorionak, BENAT, hillaren 30ian sei urte egingo dittuzulako. Etxekuen partez.



Zorionak, PAUL Alberdi Carracedo, atzo urte bi egin zenittualako. Maitte zaittugun guztion partez. Aitta, Ane eta amatxo.



Zorionak, UNAX. Bixar urte bi egingo dittuzu eta patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IKER Merizalde Buenaire, martitzenian lau urte beteko dittuzu-eta. Familixaren partez.



Zorionak, OSKAR, domekan urtiak bete zenittuan-eta. Besarkada eta musu haundi bat lagunaren partez.

LA SALLE - AZITAIN IKASTETXEAK

2007-2008 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:

BATXILERGOAK [A eta D]

GIZARTE ZIENTZIAK
OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTIFIKO-TEKNIKOAK

Etengabeko Jarduna

Badugu ikasteko leku bat zuretzat!

www.lasalle.es/eibarlasalle

DEITU 943 121 698 - 943 202 505 Telefonoetara - MAIATZAREN 5etik 9ra

Ignacio Zuloaga

Institutua EIBAR

non dago aurrerapena?
euskeraz bizi dena?
aukerarik onena?
non eman izena?
Ignacio Zuloaga institutuan
hor daukazu dena!

Dereduan 27 URTE

Batxilergoan espezialduak
Artistikoa (A eta D ereduek)

Giza eta Gizarte zientziak ^(D)
Zientifiko/ teknikoak ^(D)

ELKARTRUKEAK

Europako ikastetxeekin
1. mailan Ingalaterrara
2. mailan Alemaniara

Ignacio Zuloaga Iñi Tel. 943208349

www.ignaciозuloaga.net

-e-maila-012055aa@hezkuntza.net

Jardun 3 Eibar

Klase teoriko
zein praktikoak
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
ikusentzunezkoen
abantailak
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia ziurtagiriak
lortzeko ikastaroak

GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK

SOLOZABAL
autoeskolak

HELBIDE BERRIA

Estaziño kalea, 8

Tel. 943 70 23 84



BULEGOAK
BANATZEKO
MANPARAK



ETESA

Tfnoa. 943 12 19 73 - Faxa 943 12 70 68
Bidebarrieta, 66 - 428 Postakutxa - 20600 EIBAR
e-mail: eli-etesa@euskalnet.net